



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

POLITIKA ZIENTZIAK ETA KUDEAKETA PUBLIKOA

IKASTURTEA 2015-2016

GOBERNU ONA ETA GARDENTASUNA

Eusko Jaurlaritzaren kasua

EGILEA: KEREJETA AGIRRE, IZASKUN

ZUZENDARIA: NOVO ARBONA, AINHOA

Data, 2016ko ekainaren 6a

AURKIBIDEA

1.SARRERA	2
1.1 Lanaren aurkezpena	2
2.MARKO TEORIKOA: gobernatzeko ereduen eboluzioa, gobernu onaren kontzeptualizazioa eta gardentasunaren garrantzia	5
2.1 Gobernatzeko ereduen eboluzioa	5
2.2 Gobernu onaren kontzeptualizazioa	10
2.3 Gardentasuna gobernu onaren ardatz nagusia	15
Gardentasuna printzipioaren jatorria eta definizioa	16
Aurrebaldintzak: agindu politikoa eta teknologia berriak.....	19
Gardentasunaren abantaiak eta arriskuak.....	20
3.METODOLOGIA	24
4.ANALISIA.....	27
4.1 Aurrebaldintzak: agindu politikoa.....	27
4.2 Eusko Jaurlaritzak gardentasunerako erabiltzen dituen tresnak.....	36
Legegunea	38
Open Data	41
Gardena	44
4.3 Herritarren iritzia gardentasunari dagokionez.....	46
5.AMAIERA	51
BIBLIOGRAFIA.....	58

1.SARRERA

1.1 LANAREN AURKEZPENA

2008ko krisiak eztanda egin zuenetik, espainiar estatuko biztanleriaren jarrera eta pertzepzioak asko okertu dira eremu publikoan dagoen etikari dagokionez. Izan ere, azken urteotan Espainian ematen ari diren ekintza politiko eta administratiboak gero eta handiagoak dira eta 2014an egindako CIS-eko ikerketa baten azalarazten den bezala, herritarren %63.9k hartzen du ustelkeriaren gaia Espainiako arazo larriena bezala.

Espainian ustelkeriaren kasua modu espontaneoan hazten da eta sistema politikoaren arazoa izan beharrean, ustelkeria hori pertsonifikatu egin da. Hala ere, alderdi eta klase politikoek irudia beraien osotasunean irteten da kaltetua. Jarrera horien guztien inguruan dagoen opakutasuna politikoaren eta alderdien artean, Espainiako sistema judizialak duen arbitrariotasuna eta tentazioz beteriko espazio batean gizakiak dituen ahultasun zorrotzak eramaten du herrialde bat eremu publiko zein pribatuaren gardentasun politiko eta ekonomikoa bilatzera (CIS: 2014: 5. orrialdea).

Gardentasun horrek, Gobernu Irekia ahalbidetu dezake; hau da, herritarren jakiteko eskubidea bermatu dezake, informazioa eskainiz eta horrela populazioaren parte-hartzea bideratuz erabaki hartze prozesuetan.

Mendebaldeko munduan herrialde gehienek daukate gardentasun lege bat. Gobernu Irekia eta honen barruan gardentasun dimentsioaren konpromisoarekin bat egin dute dagoeneko 69 herrialdek Open

Government Partnership nazioarteko plataformarekin¹. Hori horrela, Europar Batasuna garrantzia handia ematen ari da lege horien sorrera eta inplementazioari.

Europar Batasunak "*Europako Gobernantzaren Liburu Zurian*" hainbat gomendio mahaigaineratzen ditu gardentasunera bidean. 2000. urtetik jada hasiak ziren Europar Batasunean instituzio gardenak lortzeko lanean. Liburu honek, mugarri bat suposatu du, gainera, gardentasunaren irekierari dagokionez. Horrez gain, "*Código de buena conducta*" ere aurkeztu zuten, legalitatea, diskriminazio eza eta tratu berdintasuna, proportzionaltasuna eta koherentzia bermatzeko. Hala, Espainiak aurrerapauso bat eman du gardentasun politikei dagokionez, "*Gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onaren legea*" aurkeztu baitzuen 2012. urtean. Lege honekin gobernuarekiko konfiantza berri bat sortzea bilatu nahi da, izan ere, gardentasuna eta gobernu ona egonkortasunaren beste aurpegia dira.

Alabaina, Estatu Erakundeak ez dira izan politika horiek aplikatu dituzten bakarrak. Autonomia Erkidegoak ere martxan jarri dira gobernu on bat lortzeko beharrezko elementuak aplikatzen; Eusko Jaurlaritzan, esaterako, "*Euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren partaidetza eta gobernu onaren lege proiektuarekin*".

Boterearen erabilera herritar guztioi arduratzen gaituen zerbait da eta bereziki, botere hori nola erabiltzen den. Gobernu baten helburua eraginkorra izatea da, baina, hori lortzeko zein punturaino hartzen da kontuan gardentasuna, kontuak ematea, gizarte zibilaren parte-hartze eta Zuzenbide Estatuaren aplikazioa? Dena al da bidezkoa gobernu eraginkor bat lortzera bidean?

Politikoen lanaren inguruan kontuak ematea gaur egun, nahiko eskasa da eta beraien azalpenak instituzioek egikaritzen duten funtzioen

¹ Open Government Partnership erakundeak dagoeneko, gobernu irekiarekin eta gardentasunarekin konpromisoa hartu duten 69 estaturen sinadura jaso dute. Hauek, adierazpena sinatzeaz gain beraien estatutetan martxan jarriko dituzten neurrien berri ematen dute erakundeari. Besteak beste, Espainiak adierazpena sinatu du eta urterko estate gobernuak hartzen dituen neurrien berri ematen du. Informazio gehiago; <http://www.opengovpartnership.org/> topa daiteke.

inguruko diskurtsoetan oinarritzen dira. Diskurtso horien bitartez, askotan, gizarteko arazoan gainean dagoen okupazio eta arduraren eskasa ezkututzen da.

"Buenas Prácticas de la SIC, Buen Gobierno y Responsabilidad Social" txostenean agertzen den moduan, OECD-ren arabera gobernu onak demokrazia eta giza eskubideak indartzen laguntzen ditu, oparotasun ekonomikoa eta gizarte kohesioa hobetzen du, pobrezia gutxitzen laguntzen du, ingurugiroarekiko babesa eta baliabide naturalekiko erabilera jasangarria sustatzen du eta administrazio eta gobernuaren konfiantza sakontzen du.

Gauzak horrela, ikerketa lan honek bilduko dituen helburu orokorrak honako hauek izango dira: gobernu ona zer den definitzea, gardentasunaren garrantziaren gorakada azaltzea eta gobernu ona eta gardentasuna kontzeptuak harremanetan jartzea. Ondoren, modu zehatzago batean aztertuko da: gobernu onaren kontzeptualizazioaren bilakaera historikoa, gobernu onak biltzen dituen elementuak zeintzuk diren eta Europan, Espainian eta bereziki, Eusko Jaurlaritzan gardentasuna nola txertatu den ezagutzea. Hori jakinik, Eusko Jaurlaritzak helburu horiek lortzera bidean zein tresna erabiltzen dituen eta lege berriarekin ze baliabide berri jarriko dituen abian aztertzea izango da lan honen helburua.

Txostenaren antolaketari dagokionez, marko teorikoan gobernu onaren kontzeptualizazioa eta horren analisiaren eboluzioa nolakoa izan den azalduko da, ondoren, gardentasunaren definizio eta funtzioari bide emanez. Horren ostean, analisirako erabilitako metodologia zein izan den aurkeztuko da. Analisi hori, hiru zatitan bananduko da: aurre baldintzak, Eusko Jaurlaritzak gardentasunerako erabilitako tresnak eta azkenik, hiritarrek gardentasunaren inguruan dituzten iritziak.

Behin marko teorikoa eta analisia burututa, ondorioekin amaituko da txostena, Eusko Jaurlaritzak gardentasun printzipioak bere gain hartu eta aplikatzen dituen jakiteko.

2.MARKO TEORIKOA: GOBERNATZEKO EREDUEN EBOLUZIOA, GOBERNU ONAREN KONTZEPTUALIZAZIOA ETA GARDENTASUNAREN GARRANTZIA

2.1 GOBERNATZEKO EREDUEN EBOLUZIOA

Gizartearen aldaketa ematen eta administrazioa ulertzeko erak aldatzen doazenez, gaur egun, ezinbestekoa da burokraziak estatuaren zerbitzurako exekutaturako erabaki eta prozedurak sistematikoki aztertuko dituen diziplina bat egotea. Horrela, gizarte diziplina gisa, administrazio publikoa ezagutza zientifiko, metodologiko eta teknikoengatik osatua dago, esturturen alderdi politikoetan ematen diren interbentzio eta ulermenari bideraturik. Modernizazio prozesuak eta estatuaren erreformak administrazio publikoaren diziplinaren esparruan hainbat elementu garaikide ezarri ditu, administrazioaren beraren objektua definitzeko asmotan.

Bigarren Mundu Gerra ostean, estatuak, tradizionalki, izan zuten ardurari buruzko ikusmoldeak porrot egin zuen, eta estatuak gizarte arazoaren konponbiderako leku nagusia hartu zuten. Estatuak, termino orokorretan, herritarren beharren bermatzailearen papera bereganatu zuen. Denbora aurrera joan ahala, estatuak bete behar zuen rolaren inguruko pertzepzioa aldatuz joan zen; bada, interes taldeen egoera eta posizio berriak sortu ziren, gobernuentzako erronka bihurtu zirenak.

Hori dela eta ekonomiaren irekierak eta globalizazioak lehiakortasuna areagotu zuten, eta horrek sektore publiko eta pribatuaren arteko interdependentziari ospea eman zion. Herritarrek eskakizun konplexuak azalarazten dituzte eta, era berean, gobernuen gaitasuna gizarte arazoei aurre egiteko zalantzan jartzen da. Bestalde, testuinguru honetan ematen

diren finantza integrazio gogorra eta gobernu ekintzak, gorabehera eta ziurgabetasun askoko esparruan garatzen dira.

Administrazio publiko zein pribatuen helburua eraginkortasuna lortzea den arren, eraginkortasun hori definitzeko orduan ezberdintasun bat nabaritzen da. Bi erakundeek helburu konplexuak lortu nahi dituzte. Hala ere, erakunde pribatuen helburua sarrera ekonomikoak lortzea da; eta bestalde, erakunde publikoen helburuek izaera kualitatiboa hartzen dute; neurtzeko zailagoak. Horrez gain, erakunde publiko horiek arreta handiagoa jarri beharko diete arau juridikoetan agertzen diren prozedurei, erakunde pribatuek egiten ez duten bezala. Era berean, administrazioak objektibotasunez bete beharko ditu interes orokorrak, harreman espezialak eta preferentziak alde batera utziz.

70. hamarkadan kudeaketa burokratiko tradizionalak eta ongizate estatuak krisia jasan zuen, administrazio publikoaren hedapenak jasan gaitza egiten baitzuen egitura zaharrekin kudeatzen den antolaketa erraldoi berria. 1996an Arbós eta Ginerrek idatzi zuten bezala, estatuaren gehiegizko garapen eta gizarte-itxaropen zabaltzearekin eta zatiketarekin, ezingo litzateke garapen ekonomikorik eman (Villoria, 2014: 5.orr).

Aldi berean, herrialde kontinentaletan Estatu Liberalaren aurrerapenarekin eta oinarrizko eskubideen jardueraren orokortzearekin batera, administrazioarekiko kultura demokratikoa itxura anglosaxoia hartzen hasi zen. Estatu Liberalean administrazioren legitimitatea ordezkartzatik zetorren; gobernuaren eta administrazio publikoaren legitimitatea agintzeko eta erabakitzeke ahalmenean eta legean oinarritzen zen. Era honetan, legeak eta arauak betetzea nahikoa zen administrazio publikoaren kudeaketa egokiaz aritzeko. Ikuspegi berriak, administrazio publikoaren betebeharrak nola onartu, nola bete eta nola kontrolatzeko era berri bat dakar. Honek eragina du hiritarren eta administrazio publikoaren arteko harremanean. Hauek horizontalagoak bihurtzen dira, erlazio bertikal tradizionalaren aurrean.

Era honetara, 1975ean gobernagarritasunaren krisia eman zenean, Villoriak Croicerretik jasotzen duen arazoaren definizio batek indarra hartzen du,

krisiaren jatorria "estatu batek duen gaitasun ezagatik arazoak identifikatzeko, politikak definitzeko eta politika horiek efizienteki ezartzeko" (Villoria, 2014: 5.orr). 1989. urtean, Washingtongo Akordioa sinatu zen. Akordio horrek herrialdeek beraien garapena jasan ahal izateko aholku eta errezeta batzuen zerrenda eskaintzen zuen. Horren bitartez, paradigma berri bat mahaigaineratu zen: New Public Management (NPM edo euskaraz, Kudeaketa Publiko Berria). Kudeaketa Publiko Berria Benavidesen arabera, hiru maila ezberdin integratzen dira (De Miguel, Ribes, De Miguel, De Val Segarra; 2007: 2.orr): estatuala, estatuko antolaketa administratiboa; publikoa, herritarren interes partekatua; eta pribatua, interes indibidualak dira, bateratu egin behar direnak eta taldeko interesekin gatazkan sartu ezin daitezkeenak.

Autorearen aburuz, oreka lehenengo edo azkeneko punturantz okertzen bada, herritarrek konfiantza galduko dute beraien ordezkariengan. Era honetara, NPM-ak garapen bat jasaten du, ikuspegi ekonomista soiletik hiritarrak aktore berri bilakatzen ditu. Hasiera batean, estatu gutxiago eta konfiantza gehiago nahi zen merkatuaren ahalmenean, gizartearen arazoak konpontzeari dagokionez. Momentu horretan, gobernu ona baino, gobernu gutxiago bilatzen zen: 1.Estatuko instituzioak kontuan hartu gabe politikak egitea posible dela sinestea; 2.Politika ahaztea eta gobernuaren eredu teknokratikoari balio handiegia ematea, 3.Sistemaren ezinbesteko zuzentasuna eta legitimazioa ahaztea. (Villoria, 2014: 5.orr).

1990. hamarkadan gobernantzaren bitartezko modernizazioa garatu zen. Modernizazio hori estatuen legitimitate-autoritate horren krisitik sortu zen eta estatuko instituzioen ebaluazio berri bat dakar. Garai hartan, Garapenezko Estatuaren gizarte eta ekonomia garapenerako faktore garrantzitsu bat izan zitekeela ondorioztatu zuten eta garapen hori eman zen; estatu batek erabaki egokiak hartzean estatua bera sustatzen eta Zuzenbide Estatuaren bermatzea. Garapenerako Estatu berri horrek, gobernu onaren oinarriak jasotzen ditu: 1. Gobernariaren boterea murriztuko duen konstituzio baten sorrera; 2. Botere judizial independente bat; eta 3. Legea aplikatzean inpartzialtasuna erakutsiko duen gobernu bat (Villoria, 2014: 6.orr).

Azken finean, boterea mugatzea du helburu ikuspegi honek. Innerarityk *"Un mundo de todos y de nadie. Piratas, riesgos y redes en el nuevo desorden global"* idazlanean aipatzen du botereak behatzeko gaitasun bat suposatzen duela, ezkutatzekoa, eta horren eskutik etorri da beti talaien eraikitzea. Ikusi eta ezikusia izatea ezinbesteko errekurtsua da gizarte kontrolerako eta era berean, boterearen mantentzerako". Ideia hori Focaultek garatu zuen: "boterearen jarduerak bere jardueraren ezkutatzea ekartzeaz aparte, herritarren eskaintzea zekarren" (Innerarity, 2006). Ferrajoliren arabera, politikatik eta enpresetatik gauzatzen den informazioaren kontrol bikoitzak, desinformazio handiagoa sortu du eta, beraz, askatasuna eta kontrolaren arteko joko bat ematen dela gaineratzen du Beckek. (Aranda, 2013: 217.orr).

Mugatze, egiaztatze eta kontrol lan honetan gardentasuna ezinbestekoa da. instituzio onak daude -formalak eta informalak- eta horiek, ezagutza metakor batetik abiatuz legitimoak, bidezkoak, eraginkorrak, egonkorak eta malguak izaten amaituko dute. Autore askok bat egiten duten moduan, kudeaketa publikoan gardentasunak laguntzen du demokraziaren kalitatea eta efizientzia hobetzen. Horri loturik, teknologia berrien agerpenak efizientzian eragin handia izan du, eta horrek, noski, gardentasunaren bidean laguntzen du. Cotinoren (2003) arabera, administrazioa digitalizatzek teknologia aktibo estrategikotzat hartzea dakar. Zerbitzu publikoen eskaintzan paradigma teknologiko berria sartzeak "portalitis" izenekoan erortzea suposatzen du; non, azkenaldian administrazio publiko asko ikuspegi nahiko sinplistan erori diren, gobernu eta administrazio publikoaren arteko harremanak transformatzea dakarrena.

"Administrazio elektronikoari dagokionez, gobernu elektroniko eta digitalizazio prozesu horrek autore asko eraman ditu informazio teknologikoaren eraldatzearen inguruan hitz egitera" (Cabrera, 2014).

Horrela, Jarquinek dio informazioa teknologiaren bitartez eskaintzeak asko aldatu dituela erakundeen formak, kudeaketa eta estatuaren prozedurak. Hala ere, ez du aldatu, eta ez ditu aldatuko, estatuaren oinarritzko

erantzukizunak, epe luzerako gobernagarritasun demokratikoa eta estatuaren interbentzio eraginkorra behar baitu.

Era beran, Castellsentzat, azkeneko berrikuntza teknologikoek posible egin dute gizarte zibilak estatua kontrolatzea printzipio demokratikoen bitartez, interes publikoko eraginkortasuna kaltetu gabe. Horri lotuta, Kliksbergerek beste ideia bat batzen du: garapenean dauden hainbat herrialdetan gizarte politiken formulazioak topo egin du informazio sistema ezarekin, eta horrek gizarte kudeaketa eraginkor bat lortzea oztopatzen du.

Honen harira, gardentasuna eta teknologia berrien garapenak ez dira gobernatzeko era berriak kontuan izan beharko dituen baldintza bakarrak. Garatutako gizarte demokratikoetan, XX. mendeko bigarren erdialdean, administrazioa, kudeaketa publikoa eta herritar eta botere publikoen arteko harreman funtzionalak ulertzeko era aldatu da. Argi dago ibilbide honetan baldintza historiko, kultural eta sozialek eraldaketa horien erritmoa baldintzatu dutela. Aldaketaren korrante honetan, herritarren posizioak astintze latza jaso du, beraien aldarrikapen indibidual eta taldekakotan, baita bitartekari agente independente gisa ere. Herritarrek politika publikoen aurrerapen lerroak zehazten dituzte, kudeaketa prozedura edo aukeraketa politikoko prozesuetan parte hartuz (Bote, Garcés, Garía, Marín eta Navarrete, 2007: 92-93.orr).

Camou, Garreton eta O'Donellek dioten moduan, gobernagarritasuna oinarritu behar da herritarren parte-hartze politikoan, akordio sozial eta politikoetan, instituzioen errekonozimendu eta indartzean eta azkenik, gizarte eskaeren bideratze eta erantzutean. Gobernagarritasunaren ikuspegi instituzionalistatik, lurraldeko instantzia ezberdinen boterearen distribuzioa aztertzen da (esparru instituzionala). Marko hori, nazioko legegileak definituko du, eta ondoren, tokiko gobernuei egokituko zaie legeria komunitatearen alde gauzatzea herritarren demandak kanalizatzeko, Navarro eta Ramírezek azaltzen duten moduan (Fernández, Parra eta Briceño, 2010: 79.orr). Hala ere, egungo testuinguruan gizarte zibilak modu zuzenean parte-hartzen du erabakietan. Gobernu estilo berri honi gobernantza deritzo; politika publikoetan gizarte zibila eta estatuaren arteko harremana modu zabalagoan bultzatzeagatik bereizten da.

Horren harira, gobernu on bat eta gobernantza sistema ona lortzeko gardentasuna ezinbestekoa da, ez bakarrik bere horretan boterearen kontrolerako ezinbesteko delako, gizarte parte-hartzaile batek horrela eskatzen duelako baizik. Horrela arduradun publikoek informatu, azaldu eta akatsen ondorioak bere gain hartuko dituzte; beraz, garapen iraunkorra, kalitatezko demokrazia eta ongizate orokorra lortzea ahalbidetuko da.

Avelino Blascok *"El derecho público de la crisis económica. Transparencia y sector público. Hacia un nuevo derecho administrativo"* idazlanean aztertzen du demokrazia parlamentarioa, herriaren konfiantzan oinarritzen dela; eta konfiantza horrek eskatzen du gardentasuna, instituzio publikoen jardueretan bai eta hori ordezkatzeko duten langileengan. Demokrazia parlamentarioan gardentasuna ezinbesteko tresna bilakatu da legeen sorrerarako, administrazioaren prozeduretan, herritarrek erabakietan parte-hartzeko orduan. Instituzio publikoei dagokienez, gardentasunaren funtzionamenduak iritzi publiko informatua izateko formazioan laguntzen du, jendarteak parte-hartzeko unean informazioa izan dezan.

2.2 GOBERNU ONAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

Aristotelesen arabera, estatuaren xedea gizonaren helburu etikoen gauzatzea da: bere existentzia fisikoaren perfektzioa eta zoriontasunaren erdiestea. Biziraupenaren beharragatik sortua, estatuak bizitza pleno baten lorpena bidean jardungo du. Gizakiaren edozein ekintzaren helburua, ez da izan behar lortutakoa mantentzea, baizik eta ekintza onaren lortzea.

Pentsamendu politiko aristotelikoan "estatu on" baten ezaugarriak oso konplexuak dira gauzatzeko, eta funtzionamendu on baterako doikuntza asko behar dituzte. Aristotelesen arabera, ustelkeria ematen da ondasun publiko batetik interes pribatu baterako desbideratzea ematen denean, eta horrek, estatu onaren lorpena ezinezko bihurtzen du.

Ciceron jurista, politiko, filosofo eta hizlari erromatarrek zioen: "estatu ezin daiteke etengabe existitu ez baditu herritarren eskubide eta

betebeharrak aitortzen; Estatua, <<herriaren kontua>> da eta azken hori, gizonen elkarren arteko adostasunaren bitartez existitzen den asoziazio bat da, legeei eta parte-hartzeari dagokionez” (Mansilla, 1982: 163-168.orr). Botere publikoari buruz zioen: “botere publikoa gauzatzen duen eta hortaz, estatuaren jarduna ordezkatzeko duen magistratuak, ondorengo irizpideen arabera jardun beharko du: dignitatea izan, begirunea erakutsi, legeak eta eskubideak zehaztu eta enkarguen fede ona mantendu” (Aranda, 2013: 217.orr).

Gobernu ona eta txarraren kontzeptuen sustraiek historian ibilbide luze bat dute. Manuel Villoria *“Desarrollo, buen gobierno y transparencia: revisión conceptual”*-en (2014) azaltzen du gobernu on bat izango litzatekeela: instituzio formalak (arau eta erregelamenduak) eta informalak (antolaketa publiko bakoitzean ematen diren logikak) bultzatzen dituen; gobernu horiek, beraien antolamenduan gardentasuna, kontuak ematea, eraginkortasuna, koherentzia, osotasuna eta objektibotasuna edo inpartzialtasuna eta parte-hartzea sustatzen dute. Hori egiteko modua, arauak sortzea eta horiek inplementatu ahal izateko prozesu egokiak sortzean datza; hainbat organo sortuz, instituzio eta prozesuek egoki lan egiten dutela ziurtatzeko. Hori guztia, gizarte eta merkatuaren parte-hartze maximoa bilatuz.

Beraz, gobernu ona, helburu onaren bilaketan botere publikoa eta baliabideak lortu eta erabiltze forma legitimo, arduratsu eta eraginkorrak bideratzen dituen da. Bada, gobernu on batek derrigorrez bermatu behar du lehentasun politiko, sozial eta ekonomikoak gizartearen adostasun batean oinarrituta daudela eta garapenerako erabiliko diren baliabideen erabaki-hartze prozesuan herritarren ahotsak entzun direla.

Manuel Villoria eta Agustín Izquierdoren *“Ética Pública y Buen Gobierno”* izeneko liburuak, gobernu on batek egin behar duen eta egin behar ez duenaren inguruko hausnarketa sakon bat eskaintzen du. Orokorrean, gobernu onak gizakiari askatasuna eskaintzen dio, eta gaitasunak eskaintzen dizkio dominazio arbitrario oro saihesteko. Instituzio diseinuaren esparruan, gobernu onak suposatzen du eremu parte hartzaile dialogozko eta kooperaziozkoak egotea. Eremu konstituzionalean, eskubide eta

askatasunen babesa bermatu behar du gobernu on batek; eta politika publikoen eremuan, herritarrei ulermena, eztabaida eta analisisia oinarri duten politika eta programa horiek eraman behar ditu aurrera.

Gobernu onaren definizioa eta esparrua mugatzeko egin diren ikerketa ezberdinak topa ditzakegu; era honetara, Munduko Bankuaren Institutuko hainbat ikerlarik gobernu onaren sei dimentsio ezberdin bereizten dituzte, zeintzuetan aurreko zortzi elementuak aplikatuko diren: 1. Ahotsa eta kontuak ematea, 2. Gobernuaren eraginkortasuna, 3. Erregulazio karga falta, 4. Zuzenbide Estatua, 5. Botere Judizialaren independentzia eta 6. Ustelkeriaren kontrola.

Lehenengo eta seigarren dimentsioei zuzenean eragiten die gardentasun printzipioak, baina zeharka, gobernuaren eraginkortasuna bideratzeko ezinbestekoa da hiritarren parte-hartzea eta honetarako behar da, hiritarrek gobernuen ekintzen berri izatea. Honi jarraiki, Villoria eta Izquierdoren idazlanera bueltatuz, gobernu batek bere helburuak lortzeko eta gobernu ona izatera heltzeko, sei elementu hartu beharko ditu kontuan: eraginkortasuna, kontu ematea, erantzukizuna eta parte-hartzea inpartzialtasuna, eta gardentasuna (Villoria eta Izquierdo, 2015: 345-361 orr).

Eraginkortasuna

XX. mendeko azken urteetan, kudeaketa eraginkorraren indarra zela eta, "gobernu eraginkortasunaren" kontzeptua modan jarri zen. Termino horrek, ekonomian eta gizartean nahi ziren helburuak produzitzeko gaitasuna suposatzen zuen. Gobernu onarentzat garrantzitsua da helburu ekonomiko desiragarriak lortzea eta gizarte ondoeza sortzen duten elementuen ezabatzea. Horregatik, gaur egun "emaitzekiko kudeaketa" eta "garapenerako emaitzendako kudeaketa" ezberdintzen dira (Ospina, 2006).

Gobernu onaren eraginkortasun dimentsioa 70. hamarkadan sortu eta aipatu den kudeaketa publiko berriaren ikuspegi ekonomistan du oinarria. Nahiz eta eraginkortasuna neurtzeko garaian ez diren soilik zerbitzuak dituen gastuei edo onurei erreparatzen. Honela, gobernuaren zerbitzuak

onartzen dituen arauak gizarteak beregain hartu dituen balioekin bat datozen ere kontuan izan behar da eraginkortasuna neurtzeko garaian.

Kontuak ematea

Villoria eta Izquierdok Wencesen teoriari jarraituz aipatzen dute: kontuak ematea dela prozesu bat, non, gobernari, ordezkari eta zerbitzari publikoek informatu, erantzun eta justifikatu egiten duten haien jarduerak, erabakiak eta ekintza planak, gobernatuen aurrean. Gobernuak eta administrazio publikoak hiru funtzio nagusi ditu: erabakitzea, burutzea eta egiaztatzea. Egiaztatze, kontuak eman, ebaluatu edo kontrolatu prozesu honetan jartzen da indarra gobernu onean.

Egiaztatze prozesua oso ezberdina izan da gobernuaren eta administrazio publikoaren eboluzioan. Hasieran, Estatu Absolutuan erregeak kontrolatzen zuen estatu zerbitzariak egiten zuten lana, Estatu Liberalean, kontrola arauaren arabera egiten zen eta batez ere, botere judizialean kokatzen zen, erakunde kontu-hartzaileetan eta horretarako sortutako epaimahai berezietan. Kudeaketa berriak etekinaren kontrol bide berriak ekartzen ditu eta honen eboluzioak etekinen kontrolari uko egin gabe, egiaztatzean eta kontrolean aktore berriak barneratu ditu, hiritarrak, eta neurtzeko aldagai berriak sortu, ez da zerbitzuaren azkartasun edo kostea kalkulatzeko erabiltzen diren aldagaiak bakarrik kontuan hartzen, kalitatea, printzipioak... ere neurtu behar dira. Adibidez, politika publiko batek genero ikuspuntuan duen eraginaren neurketa (Lippi eta Morissi, 2008:38-40).

Erantzukizuna eta Parte-hartzea

Demokraziak bizirauteko, beharrezkoak dira oreka mantenduko duten hiru mekanismoak garatzea: sentsibilizazioa, ardura eta parte-hartzea. Mundu osoan ari da zabaltzen parte-hartze tresnak aplikatuz gero, ordezkari publikoei lagunduko zaiela beraien helburuak legitimoagoak eta eraginkorragoak izaten. Hiritarrak informazioa badute erabakietan, burutze lanetan eta egiaztapenean, kontrolean, eragin dezakete, politiken etekina zabalduz.

Hala ere, parte-hartze publikoaren baitan, dispositibo ezberdinak daude eta horien artean aurkitu dezakegu: asanbladak, erreferendumak, barrutietako juntak, barrutietako fondoak, gizarte-garapena, aurrekontu parte hartzaileak, herritar epaileak, kontsulta komisioak, parte-hartze estrategikoko planak eta gizarte garapenerako planak, zerbitzu publikoetan erabiltzaileak diren herritarren ordezkari mekanismoak eta azkenik, sektore publiko-pribatuko mahai-ingurua. Parte-hartze sistema bakoitzak partaideen aldetik gaitasun eta baliabide ezberdinak eskatzen ditu, baina guztietan informazioa edukitzea ezinbestekoa da.

Hori dela eta, administrazio publikoaren legitimazioa lehen legetik etortzen zen moduan, gaur egun, emaitza eta hiritarren parte-hartzetik dator. Hau da, gero eta gehiago ematen da administrazioaren legitimazio hori zerbitzu egokiak eskaintzen modu azkar eta espezializatu batean. Beraz, hein handi batean arreta publikoa gobernuaren emaitzetara eta "emaitzen legitimaziora" bideratu dute. Hots, legegile eta instituzio ordezkariak eta elektoraletatik exekutibo eta bere organo administratibo eta zerbitzuetara (Colino, 2012: 19.orr).

Inpartzialtasuna

Inpartzialtasuna sistemaren oinarria da, eta herritarrak berdintasunez tratatzean datza, harreman espezialak eta preferentziak alde batera utziz.

Gardentasuna

Hau da Gradu Amaierako Lan honen oinarria. Gardentasuna gobernuak bere gain hartzen duen balio bat da. Gardentasuna ezinbestekoa elementutzat jotzen da gobernu onaren definizioan baina gainera, gobernu onak dituen beste elementuak bermatzeko ezinbestekoa da. Ezin da parte-hartzeaz, arduraz, kontu emateaz aritu ez baditugu, besteak beste gobernuaren eta administrazio publikoaren informazio eskuragarri uzten. Horregatik, gobernu onaren elementu honi atal berezi bat eskaintzen zaio Marko Teorikoan.

2.3 GARDENTASUNA GOBERNU ONAREN ARDATZ NAGUSIA

Aurreko gobernu onaren elementuen definizioan aipatu bezala, Nazio Batuen "*What is Good Governance*" txostenean, gobernu onaren giltzarri diren zortzi elementu agertzen dira: kontuak ematea, gardentasuna, erantzukizuna, zuzentasun eta integrazioa, efikazia eta efizientzia, Zuzenbide Estatuaren jarraitzea, parte-hartzea eta azkenik, bideratutako adostasuna. Baina txosten honek gobernu onean gardentasunak duen papera areagotzen du. Bertan, aipatzekoa da gardentasunak, informaziorako sarbideak eta gobernu onak hiru helburu komun dituztela (Aranda, 2013: 215.orr): lehenengo helburua, instituzioen jardueraren legitimitate altua dagoen erakunde politikoak sortzea; bigarrena, gobernantza publikoan parte hartuko duen gizarte zibil bat izatea eta azkena, efikazia eta efizientziarekin lan egiten duen administrazio bat izatea eta ustelkeriari uko egingo diona.

Gardentasunak elementu bakar eta isolatu gisa ez du funtzionatzen. Izan ere, demokrazia batean gardentasunaz aparte, segurtasuna, jabetza pribatua edota pribatutasuna ere oso garrantzitsuak dira estatuaren funtzionamenduak aurrera egin ahal izateko modu eraginkorren. Halaber, Parigik, Geetak eta Kailasamek "*Ushering in Transparency for Good Governance*" (2004) lanean baieztatzen dute gardentasunak ez duela soilik laguntzen garapenaren inguruko ideiak eta proposamenak herritarrei zabaltzen, baizik eta, organismo publikoak herritarrak entzutean interesatuta daudela konbentzitzeko ere balio du. Behin herritarren ikuspuntuak zeintzuk diren ikusita, eta beraien lehentasunei eta ardurei erantzunda, gobernuaren printzipioak indartu eta erabaki-hartze prozesuaren legitimitatea handitzen da.

Hala ere, gardentasuna eta gobernu onaren politikak eraginkorrak izateko, administrazio publikoetatik irten behar dira. Bada, jasotzen dituen printzipioak beste antolakuntza pribatuetara zabaltzeko behar dira, ekintza publikoarekin daukaten harremanagatik; eta harreman hori dela eta, estatu

demokratikoaren funtzionamendua eta herritarren parte-hartzea baldintzatzen dutelako.

GARDENTASUNA PRINTZPIOAREN JATORRIA ETA DEFINIZIOA

Estatu Liberala, gero demokratikoa, opakutasunari espazio handiak kentzen joan da, gardentasunak dituen fronte askoren alde. Liberalismoarekin, abian jarri zen prozesu bat, zeinetan informazioa botere gisa, gobernatuen eskuan gelditu behar zen gobernuari aurre egiteko. Horrela, informazioa lehendabizi botere tresna bat izan zen arren, gero, botere estrukturetatik independizatu da eta bera bihurtu da botere. Monarkaren subiranotasunarekin informazioa berarentzat eta bere idazkarientzat debekatuta gelditu zen eta, herriaren subiranotasunarekin eta konstituzionalismoarekin informazio horren esparrua zabaldu egin zen.

Liberalismoaren hasieratik eta parlamentarismoaren sorrerarekin, Benthamen topikoa ekarri behar dugu gogora: "lehenengo legea Parlamentuaren konfiantza publikoa irabazteko, publizitatea da". Hala ere, badaude kontrako argudio batzuk ere, Weberren eskutik esate baterako. Azken honentzat, "gobernu burokratikoa, bere tendentziari jarraiki, publizitatea baztertzen duen gobernu da", sekretismoa baita administrazioak administratuengan duen nagusitasunaren beste proba bat (Cotino, 2003: 7.orr).

Horrela, gardentasuna eta publizitatea, Estatu Liberal eta konstituzionalaren hasierarekin lotu dezakegu, arauen argitalpen forman, Parlamentuarekiko Exekutiboaren informaziorako sarbidearen inguruan eta herritarren sarbidearekiko Parlamentuaren deliberazioetan (Cotino, 2003: 8-10.orr).

Gaur egun, pil-pilean dagoen gaia da gardentasuna, gobernu ona eta demokraziaren kalitatearena. Lan honen funtsa izanik, bereziki nabarmendu nahi da gardentasunaren kontua, gobernu onaren garrantzizko faktore bat delako. Gardentasuna, oso lotuta dago kontuak ematearekin eta autore askoren ustez, ezinda batez hitz egin bestea aipatu gabe (Villoria eta

Izquierdo, 2015: 345-361.orr). Demokraziak herritar informatuak eskatzen ditu, epaitzeko gai direnak, eta hori soilik lortu daiteke gardentasuna eta formazioarekin.

Europar Batasunaren esparruan gardentasuna ustelkeriari lotuta ez dagoen arren, borroka honetatik at ere ez da guztiz gelditzen. Horrela, esparru horietan gardentasun kontzeptua ere agertuko da.

Ustelkeria ematen da Pasquino idazlearen ustetan, "interes partikularrei mesede egiteko, funtzionario publiko bat sistemaren estandarretatik at dagoen jarrera bat hartzera eramaten denean, ordainsari baten truke. Ustela da, hortaz, estatu egituran rol bat betetzen duen jarrera ilegala duen oro". Ustelkeria hori, lau elementuk osatzen dute: legezketasun ezak, legitimitate ezak, sekretuak eta bidegabekeriak (Aranda, 2013: 223.orr).

Arazo horiek eta beste zenbait direla eta, XXI. mende honetan, gardentasuna azalarazten ari den balio bat da aurreko lerroetan aipatu den bezala. Gardentasunak demokraziarekin daukan lotura hain da begi bistakoa, ezin dela ulertu baten existentzia bestea gabe. Hala ere, egokiagoa da pentsatzea gardentasunak sistema baten izaera indartu edo murrizten duela. Gardentasuna, administrazio publikoaren tresna gisa indartzen ari da. Modu honetan gardentasuna, "efikazia, efizientzia, objektibotasuna, legalitatea eta Administrazio Ona bermatuko duen tresna da" (Cotino, 2003: 29-34 eta 36-37.orr). Ondorioz, gardentasuna politikoki eta juridikoki kontrol demokratikora lotuta dago.

Kauffmann eta Kraay-en arabera, gardentasuna horrela definitzen da: "informazio egokiaren eta konfiantzazkoaren fluxuaren gehikuntza da, izaera ekonomiko, sozial eta politikoa duena eta aktore guztientzat ulerterraza dena" (Villoria, 2014: 8.orr). Informazio horrek, beraz, esparru publikoko instituzioen ebaluazioa ahalbidetu beharko du, demokraziak herritar informatuak behar dituelako, gobernuak egiten duena epaitzeko gaitasuna dutenak.

Gardentasunaren helburua, administrazioaren kontrol eta parte-hartzea baimentzea da. Hala eta guztiz ere, eskubide hauen kasuan, "administrazio ona" gainjartzen da gardentasunaren beraren helburuetan.

Gardentasunaren edukia, estrukturak gardena izateko gogoaren arabera izango da. Gardentasunak, institutu eta arau mota ezberdinak hartzen ditu bere gain, zeintzuk administrazio, botere publiko edota sistema politikoen izateko modua delinearazten duten. Hortik azpimarratzen da, hain zuzen ere, kontzeptu honen nortasun objektiboa ikuskera subjektibo baten aurrean.

Esparru publikoko gardentasuna, gobernuaren eragiketen inguruko informazio hornikuntza da, herritarrei zuzendua.

Mock-en arabera, "gardentasuna neurri bat da, non, jarduera ofizialaren gaineko informazioa eskuragai jartzen den parte interesatuarentzat" (Cotino, 2003: 16-17.orr).

Mocken iritzi horri jarraituz, suposatzen da gardentasunak hartutako erabakiak eta bere ezarpenak arauak eta erregulazioak jarraituz egin direla; eta horrekin batera, informazioa erabilgarria izango da eta hau eskuratzeko sarbide zuzena egongo da.

Behin gardentasunaren helburu, interes, dimentsio eta bitartekoak ezagututa, garrantzitsua da aipatzea Lorenzo Cotinok 2003an idatzitako "*Teoría y realidad de la transparencia pública en Europa*" idazlanean gardentasunak bere baitan hartzen dituen esparruak zeintzuk diren: botere publikoen informazio eta dokumentaziorako sarbide publikoa; ebazpenik ezkutuan ez hartzea; arauen, zuzendaritza-batzordeen, interpretazioen eta abarren publizitatea; edozein erabaki-organoren eta kide anitzeko organoen aktak eta eguneko ordenen publizitatea; informazio aktiboko politika, administrazioaren betebeharra bere politika eta ekintzen inguruan informatzeko, funtzionamendua etb; erabaki hartze prozesuetan, prozeduran... parte-hartze orokorra; botere publikoen arau eta ekintzen baldintzak: aurkezpen ulerterraza, idazketa sinplea, legearen kalitatea, koherentzia...; prozedura eta ebazpenerako motibazioa, erabakiaren arrazoiak ezagutzeko eskubidea; espedienteen sarbiderako eskubidea; erabaki hartu baino lehen entzuna izateko eskubidea; administrazioaren harremanetan solaskide bakarra izateko aukera; herritarrekin harreman zuzena duten langileen identifikazioa etab.



Hala ere, gardentasunak hainbat modalitate hartzen ditu, Sosak 2011n zehaztu zuenaren arabera (Villoria, 2014: 8-9.orr): opakua edo argia eta aktiboa edo pasiboa izan daiteke. Horrela, gardentasun opakuaren egitekoa da gobernu irekitzen ari den inpresioa ematea, benetan herritarren kontrol eta zigorra ekiditen ari denean. Horretarako, informazio isolatua ematen da, alferrikako dokumentu eta estatistika eman gabe. Gardentasun argiak, ordea, gai publikoak nola funtzionatzen duten informazioa eskaintzen du, herritarren kontrola malgutzeko asmoz. Gardentasun aktiboari dagokionez, honek datu base bateragarri eta berrerabilgarria eskaintzen du, baita estatuaren funtzionamendua ezagutu eta kontrolatzeko beharrezko informazioa ere. Hauxe, plataforma ezberdinen bitartez burutuko da, zeintzuek ahalbidetuko duten edozein motatako datuetara heltzea modu azkarrean. Aldiz, gardentasun pasiboa, eskaeraren arabera informazioa da, informazio sarbiderako eskubideari lotuta.

AURREBALDINTZAK: AGINDU POLITIKOA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Gardentasuna printzipioa aurrera erabateko bi aurrebaldintza eman behar dira. Lehengo aurrebaldintza agindu politikoa da, hau da, gardentasuna ezin da aurrera eraman lidergo politikoak bere gain hartzen ez badu. Ez da administrazio publikoak bere gain har dezakeen prozesuaren aldaketa soil. Informazioaren kudeaketak gobernu osoari eragiten dio eta aurreko paragrafoan adierazten den moduan, gobernuarekin harremanetan dagoen erakunde eta agente orori eragiten dio. Bigarren aurrebaldintza teknologia berrien garapena da. Honek informazioaren sarbidea hiritar ororen esku jartzea errazten du. Gehienetan, hiritarrei eragiten dion gobernuaren informazioaz haratago edozein gobernuaren inguruko informazioa jaso dezakegu, globalizazioarekin bat eginez hurrengo paragrafoetan azaltzen den modura.

Agindu Politikoari dagokionean, maila gorenenean eman da, hau da, lege bilakatu da kasu gehienetan. Nazioarteko legediaren arabera, "Europar Batasuneko edozein hiritar fisiko zen juridikok, bere bizilekua Europar

Batasuneko estatu kide batean duena, instituzioetako, organoetako eta organismoetako dokumentuetara sartzeko eskubidea dauka” (Sicilia, 2006: 298.orr). Informaziorako sarbide hori soilik izan daiteke ezeztatua, dokumentuaren dibulgazioak interes publiko edo pribatu jakin baten babesa kaltetzen badu, gehienbat, pertsonaren pribatutasun eta segurtasunari eragiten badio.

Informaziorako sarbide hori errazteko gobernu elektronikoa asmatu zen. Estatuak garatzen duen informazio eta komunikazioaren teknologia modernoa da gobernu elektronikoa eta helburutzat dauka kudeaketa publikoaren efizientzia areagotzea, herritarrei eskainitako zerbitzuak hobetzea eta gobernuaren ekintzak marko gardenago batean hornitzea. Horiek horrela, benefizio handiak lor ditzake: efizientzia handiagoa, efikazia handiagoa, gardentasun gehiago eta parte-hartze anitzagoa.

Bide horretatik, gobernu elektroniko baten eraikuntza funtsezkoa da informazio publikorako sarbide material gisa. Globalizazioaren gertaerak ere kontrolerako beharrak areagotzen ditu, Castellsen arabera. Autoreak dio “Sare Estatu” bat eta “administrazio moldagarri eta konektatuak” beharrezkoak direla Sare Estatu horren funtzionamenduari begira (Cotino, 2003: 40.orr).

GARDENTASUNAREN ABANTAIK ETA ARRISKUAK

Gardentasunaren bitartez, gizarteko sektore ezberdinek abantaila anitzak jaso ditzakete.

Hona hemen lehenengoak gobernuari dagokionez. Lehendabizi, herritarren eta langile publikoen konfiantza: herritarrek administrazioaren inguruko ezagutza handiagoa duten heinean, gizarte legitimitate handiagoa emango zaio; langile publikoek, gainera, segurtasun gehiagorekin lan egingo dute informazio irekia izanez gero. Bigarrenik, informazioaren barne antolaketa: gardentasunerako beharrak, administrazioa derrigortzen du ekoizten den informazio guztia antolatu eta sailkatzeko. Hirugarrenik, bere jardueraren ezagutza zehatza: behin informazio guztia antolatuta, administrazioak momentu oro badaki zer den garrantzitsua, horrela bere erabakiak egiazko

eta eguneratutako informazioan oinarrituko dira. Azkenik, jarduera irregularraren jarraipena: administrazio garden bateko kide guztiak, derrigortuak daude beraien jardueren inguruan kontuak emateko, horrela legez kontrako jardueren mandatua zailduz.

Sektore honi erreparatuz, ikerketa lan honetako analisisian, herritar eta langile publikoen konfiantza, informazio barne antolaketa eta jarduera irregularraren jarraipena nolakoak diren jorratuko da. Hori egiteko, CIS eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen galdeketak eta, lege eta kode ezberdinak erabiliko dira.

Instituzioetan, gardentasunak dituen abantailen artean, administrazioen arteko barne jardunaren erraztasuna dago; alde batetik, gainontzeko instituzioek, administrazio propioarekin erlazio estuago bat izatea erabaki dezakete. Eta bestetik, ezagutza elkarbanatzea: gardentasuna jarrera orokortu bat baldin bada, modu partekatuan lan egiteko aukera hazi egiten da, gastu murriztago batean.

Atal honetan, administrazioen arteko barne antolaketa izan beharrean, plataforma arteko antolaketa eta harremana aztertuko da analisisian, Gardena, Open Data eta Legegunea bezalako proiektuak aztertuz.

Gardentasunaren abantailak herritarrekiko dira: lehendabizi, gobernu ekintzaren inguruko ezagutza zehatza. Herritarrak modu zuzenean sar daitezke, bitartekorik gabe, jardueretikiko konfiantza: jardueraren ezagutza gero eta handiagoa izan, administrazioan konfiantza maila hazi egingo da. Bigarrenez, egiazko informazioa erabaki hartzeetan: herritarrek Exekutiboaren informazio orokorrean. Hirugarrenez, gobernuaren datu ofizialak eskuragarri dituzte, beraien inguruan ematen diren ekintza eta erabakiak ulertzeko eta ebazpenak egiteko egokitzen zaien kasu horietan. Laugarrenez, parte-hartze eta fiskaliterako gaitasun handiagoa. Ongi informatutako gizarte batek, tresna gehiago ditu bizitza publikoan parte hartu ahal izateko, hau da, kudeaketa publikoaren parte izateko. Bosgarrenez, zerbitzu profesionala: administrazio batek duen datuen katalogo antolatu eta sailkatua prest dago herritarrei atentzio zuzen eta zehatza emateko. Seigarrenez, eguneroko bizitzarako datu



berrerabilgarriak: herritarrek produktu eta zerbitzu gehiago eta hobeez gozatu dezakete, izan ere, datu gehiago daude erabilgarri eta eskuragarri.

Herritarren iritzi eta pertzepzioak jasoz, galdeketa ezberdinen bitartez, ikerketa lan honen analisisan aztertuko dira: gobernu ekintzaren inguruko ezagutza zehatza, egiazko informazioa dagoen erabaki-hartzeetan, gobernu datu ofizialak eskuragarri dauden eta eguneroko bizitzarako datuak erabilgarriak diren.

Enpresetan ere gardentasunak dituen abantailak hiru dira. Lehenengoa, balio eta aberastasunaren sorrera: enpresek datuetatik eratorritako produktuak diseinatu dezakete, dohainik direnak, ondoren komertzializatzeko asmoz. Bigarrena, kontratazio publikorako sarbidea: administrazio kontratuen informazio zehatz eta eguneratua, oinarri teknikoen agiria eta kontratazioekin erlazionatutako datuak. Azkenik, berrikuntza: informazioaren sarrera eta kanporaketa errazten duen konpainia bat, bere langileen, bezeroen eta hornitzaileen inteligentziari probetxu ateratzeko egoeran dagoena.

Txostenaren helburua, Eusko Jaurlaritzaren baitako gardentasuna aztertzea denez, enpresetan gardentasunak dituen abantailak ez dira aztertuko.

Abantailez gain, zenbait arrisku era baditu gardentasunak: ematen den informazioaren ulergarritasun maila, informazio gehiegi egotea informazio gutxiegi egotea bezain arriskutsua da, produktuaren asealdia ematean desinformazioaren paradoxa sortzen delako. Beraz, garrantzitsua da zein motatako informazioa dagoen esatea eta nola lortu daitekeen argitzea; gehienbat, erabaki hartzeen markoan informazioa bere fase guztietan aurkeztu behar da.

Informazioaren eskaintza egoki eta ulergarriak herritarren parte-hartzea ahalbidetzen du eta parte-hartze hori eraginkorragoa izatea bermatzen du. Horrela, deliberazio eztabaidak ematen dira demokrazietan, herritarren boterea, nahiak eta interesak hitzaren bitartez aurkezteko.

Esparru publikoaren jardueran, gardentasun horrek beharrezkoak ditu zenbait muga: segurtasun eta pribatutasun eskubidearen inguruko kontuak



legitimoak dira gardentasuna eta informazio esleitze kontuetan. Muga horiei jaramonik ez eginda, aipatu behar da gardentasunik gabe, "gobernu ona" deritzogun horrek esanahi gutxi lortuko lukeela.

Gaur egun, gardentasuna errendimendu altua eta koste baxua duen konponbide legitimatzaile gisa agertzen da.

3.METODOLOGIA

Gradu Amaierako Lan honetan, gobernu ona eta gardentasunaren uztarketa bat egin nahi da, bereziki Eusko Jaurlaritzak bere gobernuan martxan jarri dituen gardentasunerako tresnak aztertuz. Metodologiari erreparatuz, erabilitako baliabide eta iturriak txostenak aurkeztu dituen helburuen arabera aurkeztuko dira.

Horrela, gobernu ona zer den definitzeko unean eta honen eta gardentasunaren arteko harremana aztertzeko garaian literatura espezifikoaren berrikuspena egingo da. Izan ere, hori jorratzeko autore ezberdinen teorizazio eta kontzeptualizazioei erreparatuko zaio.

Bestalde, gardentasunaren garrantziaren gorakada nolakoa izan den ikusteko, autore ezberdinen idazlanak aipatuko dira lanean zehar eta beraz, literatura espezifikoaren berrikuspena egingo da. Baina, horrez gain, datu jakin batzuei erreparatuko zaie eta horretarako, arau eta kodeak begiratuko dira, iturri ez zuzenetan agertutako datuak gainbegiratzeaz aparte. Izan ere, teorian fokatzea ondo dagoen arren, egun, legedi ezberdinak irten dira, non, ikusten den gardentasunaren printzipioa administrazioetan gero eta nabarmenago eta garrantzitsuagoa dela; eta, iturri ez zuzenetan ikusi dezakegu nazioarte mailan ematen diren gardentasun mailen rankingak gobernu ezberdinen artean.

Helburu zehatzei dagokionez, gobernu onak biltzen dituen ezaugarriak zeintzuk diren jakiteko eta bigarrenik, gobernu onaren kontzeptualizazioaren bilakaera historiko bat egiteko, autore ezberdinen idazlanak erabiliz, literatura espezifikoaren berrikuspena egingo da.

Aldiz, European, Espainian eta bereziki, Eusko Jaurlaritzan gardentasuna nola txertatu den ezagutzeko, literatura espezifikoaren berrikuspena gutxi izan da. Honetarako, araudi eta kodeen berrikuspena eta iturri ez zuzenen erabilera izango da oinarria. Lehenik, gardentasunaren printzipio balioa Erkidego maila gaineko erakundeetan eman den ala ez eta honek Eusko Jaurlaritzan hartutako erabakiari eragin dio. Horretarako, inguruko lege eta

arauen bilketa eta azterketa egin da. Lege bidez eman ohi baita maila politiko gorenenean agindu politikoa. Era honetara, konpromiso politikoa legez onartu bada, batetik erakunde orori eragiten diola esan nahi du eta bestetik, erabaki hori denboran iraunkorra izateko helburuarekin hartu dela.

Gobernu erabakien ezaugarrietako bat mimetismoa izaten da. Hau da, lurralde maila batean hartzen diren erabakiak gainontzeko mailatan eragiten dute. Hori horrela, eta inguruko gobernuetan gardentasun politikek izan zitezkeen garrantziaren maila neurtzeko, legeen azterketaz gain, ondoko erakundeetan Komisio, kontseilu, gobernu, zein udaletxeetako web orrialdeen errepassoa egin da.

Eusko Jaurlaritzak gardentasunerako zein mekanismo erabiltzen dituen eta lege berriarekin zein baliabide berri jarriko dituen abian aztertzeko, iturri ez zuzenak eta *"Euskal sektore publikoaren gardentasuna, herritarren partaidetza eta gobernu onaren"* lege proiektua erabiliko da. Horrela, aurretik existitzen ziren tresnak zeintzuk ziren jakiteaz gain, lege berriarekin zer proposatzen den eta zer bilatzen den ondorioztatzea izango da helburua.

Azkenik, politika horien txertatze honekin, herritarren pertzepzioak ere ezagutu nahi dira eta horretarako lanean zehar Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen eta Centro de Investigaciones Sociológicas-en hainbat ikerketa gainbegiratuko dira hiritarrek, gardentasun politiken inguruan duten iritzia jaso nahian. Behean zehazten dira erreferentzia gisa erabili diren ikerketak:

- Eusko Jaurlaritza Berriari buruzko espektatibak (2013ko martxoa)
- Percepción de situación sociopolítica (Junio del 2012)
- Percepción de situación sociopolítica (Noviembre del 2012)
- Opinión política (Mayo del 2010)
- Gestión de gobierno (Diciembre del 2010)
- Políticas Públicas (Octubre del 2010)
- CIS, 2007ko urtarrila-otsaileko barometroa.

Lan hau ikerketa esploratzailea da, ez baitago oso garatuta gardentasun tresnen horien ikerketa, eratu diren ikerketa gehienak deskribatzaileak dira,



eta martxan jarri diren tresna kopurua aztertzen dute, baina, ez dute gardentasunaren eragina eta efektua neurtzen. Beraz, lehen lan honek fenomenoari hurbiltasun orokor bat suposatuko dio. Aurretik irakurritakoarekin eta ikerketaren helburuei jarraituz, honako hauek dira hipotesi gisa egin ditzakegun adierazpen orokorrak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan Gardentasun Legea onartuta ez bada ere, agindu politiko argia da eta Gardentasun tresna gehienak martxan jarri dira.
2. Gardentasuna argitaratzearekin lotu da nazioarteko kasu gehienetan eta horretarako web orrialdeak ezinbestekoak izan dira.
3. Eusko Jaurlaritzak martxan jarri dituen neurri berriek gero eta leku hobean uzten du bere gardentasun maila neurketa instituzionalean.
4. Herritarren pertzepzioak gobernuekiko okertu egin dira azken urteotan.

4. ANALISIA

Gardentasuna eta gobernu ona, estatuaren funtzionamendurako oinarrizko elementuak dira. Horretarako, arau, kode, lege eta printzipio ezberdinak aurkitu ditzakegu mundu guztian zehar.

Analisiaren lehenengo zatian, horrela, munduko, Europar Batasuneko, Espainiako eta Eusko Jaurlaritzaren gardentasun eta gobernu onaren errebaso txiki bat egingo da.

Behin hori burututa, Eusko Jaurlaritzaren mekanismotan zentratuko da lana. Tresnak hainbat diren arren, Legegunea, Open Data eta Gardena plataformetan sakonduko da, horiek baitira herritarrek administrazioarekin harremana izan gabe, eskuragarri dagoen informazioa eskaintzen duten guneak.

Gardentasuna lortzeko asmotan, hainbat mekanismo eta printzipio aplikatzen dira eta suposatzen da, horiekin herritarren konfiantza maila haziko dela eta gobernu onaren sorrera bermatu. Analisiaren azken zatian, horrela, Espainia eta EAeko herritarrek gobernuarekiko zein pertzepzio duten bilduko da; izan ere, gardentasunarekin herritarren konfiantza maila hazi edo gutxitu egiten den jakin nahi da.

4.1 AURREBALDINTZAK: AGINDU POLITIKOA

Gardentasuna eta gobernu ona estatuaren funtzionamendu egokia lortzeko funtsezko tresnak dira. Horrez gain, indar demokratikora lotuta daude, izan ere, demokrazia hobea eta estatu baten garapena handiagoa den heinean, ustelkeria gutxiago egongo da. Boterearen gehiegizko erabilera ustelkeria moduan zabaldu da, eta hori mozteko modu egokiena, administrazio gardenen eta gobernu on eta zintzotasunezko protokoloen sorrera da.

Villoria eta Izquierdoren arabera, kargu politikoen kasuan, bai politikari baita funtzionarioak ere, ondasun orokorren eta interes pribatuen arteko tentsioak tonalitate espezifikoa hartzen du. Egia da, herritar orok legeen arabera jokatu behar duela, zeintzuek gizartean agintzen duten eta horrela, interes pribatuak ondasun orokorren arabera baldintzatuta edota mugatuta dauden. Beraz, administrazioan kargu ofiziala duen pertsona batek, administrazioak ezarritakoak diren funtzioak bete beharko ditu, ongizate publikoa lortzeko asmoz. Arrazoi horrengatik, interes pribatu baten ajetasunerako existitzen den ekintza orok talka egin dezake lan egiten duen erakundearen helburuaren kontra: antolakuntzaren interesaren eta interes pribatuaren arteko gatazka arriskutsuagoa izaten da esparru publikoan beste edozein esparrutan edota beste ekintza batzuetan baino, eta hemen, izaera juridiko-moralak zeresan handia dauka.

Ez da bilatzen, horrela, instituzio gabeko gobernu bat izatea, baizik eta gobernuari boterea murriztea estatuaren berezko instituzioen bitartez. Instituzio horiek erabiliz, jokamolde eraginkor eta zintzoak sustatu, eta jokamolde ustel, laburtu eta gehiegizkoak kenduko dira. Estatu demokratikoa zuzenbide pribatuko estatu bat bihurtzea ekiditeko beharrezkoa da gobernantza mota berriak ezartzea; organizazio berri horiek Zuzenbide Estatuaren eta herritarren askatasunen bidezidorrean kokatuko dute.

Reinventing-a, Osborne eta Gaeblerrek hasi zuten 90. hamarkadan Estatu Batuetan. 1978an, gobernuak Etika lege bat onartu zuen, eta 1989an Agindu Exekutibo bat aurkitzen dugu, zeinak "Estatu Batuetako funtzionario eta langileen portaera etiko baten printzipioak" ezartzen dituen. Munduko beste potentzia batean, Errusian, Portaera Kodigo bat ezarri zen 2002an, herritarren konfiantza instituzio publikoekiko hazteko eta ustelkeria publikoa gelditzeko. Japonen, Langileen Portaera Kodigoak Ministerio eta Agentzia bakoitzerako ezarriak dira. Australia eta Zelanda Berria ere aitzindariak izan dira Gobernu Onaren arauak ezartzen. Gainera, Ekonomia eta Lankidetzaren Garapenerako Antolakundea (ELGA) lanean ari da arabiar herrialde batzuekin (Maroko, Bahrein, Jordania eta Tunez), gobernu onaren garapenera bidean.

Europar Batasunak Portaera Kodigo bat sortu zuen 2002an langile publikoentzat; honek portaera estandar jakin batzuk eskaintzen zituen. Gobernu onaren aitzindaria Erresuma Batua daukagu, funtzionario publikoentzako Kudeaketa Kode batekin 1996an. Gainera, 1999tik herritarrenganako gobernagarritasuna sustatu du “*Administrazioa Modernizatuz*” liburuarekin.

Ezinbestekoa da informazio eta gardentasunaren sarbidea arautzea, funtsezko eskubideen baitan sartuz. Finean, gardentasun eta informazio publikorako sarbidea bermatzen duen politika lehenengo pausua izango da gobernantza erantzule baten baitan; non, botere publikoek eta agenteek arauen arabera jokatu beharko duten, beraien ekintzak kontsekuenteak izateko asmotan.

Jauregik aipatu duen bezala “nazioz gaindiko korporazio handiek eta organismo eta entitate berrien sareak, bigarren plano bat zokoratzen dute politikoa den horretan. Organizazio horien aktibitatea eguneroko bizitzan eta gizarteko ezinbesteko erdigunetan kokatzen da, eta horrela, ezinbestez aldatzen ditu sistema politikoa eta bere instituzioak” (Aranda, 2013: 218.orr).

Sektore publikoko etikaren eta ustelkeriaren kontrako tresnen inguruan dagoen buruhaustea gaur egun hainbat gobernu nazional eta nazioarteko organismoen agenden lehenengo ardurak dira.

Espainiari dagokionez, Europar Batasuneko azkeneko herrialdeetakoa izan da gardentasuneko politikak ezartzen. Herrialde arteko eboluzio hori aztertzeko, hurrengo lerroetan Europar Batasuna, Espainia eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren gobernu on eta gardentasunaren inguruko datuak (akordioak, legeak, mekanismoak eta abar) mahaigaineratu, eta horien inguruko hausnarketa bat egingo da.

Nazioarteko testuinguruari dagokionez, “agintari publikoen informazio sarbiderako eskubidea oinarrizko eskubidea da. Eskubide hori estatu osoari aplikatu beharko litzateke araudi globalaren bidez zabalkunde gehiengoaren

printzipioan oinarrituta, zeinak informazio oro eskuragarria den presuntzioa ezartzen du, soilik salbuespen-sistema murriztuari uztartuta”.

Europar Batasunean eman ziren hastapenak, Maastrichteko Akordioa eta Amsterdameko Akordioan aurkitzen ditugu.

Era honetara agindu politikoa Europa mailan, Maastrichteko Akordioan, 1992ko otsailaren 7an ebatzi zen eta honek aurrerapauso garrantzitsua suposatu zuen komunitatearen eraikuntzaren historian, Europar Batasuna eratuz. Akordioa orokorragoa bada ere, gardentasunari erreparatzen dio: “Biltzarrak uste du erabaki-prozesuaren gardentasunak instituzioen izaera demokratikoa indartzen duela, bai eta administrazioerikiko herritarren konfiantza ere. Orobat, Biltzarrak gomendatzen du Komisioak txosten bat aurkeztea Kontseiluari, instituzioek informazio publikorako sarbidera hobetzeko bideratu dituzten neurriak adieraziz”.

Amsterdameko Ituna Europar Batasuneko ituna erreformatzeko testua izan zen, 1997ko urriaren 2an Amsterdamen sinatua. 1999ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen. Itun honek, oinarritzko eskubideen konstituzionalizazio prozesua jarraitzen du, Maastrichteko Itunean presente diren hainbat erreferentzia mantenduz eta berrikuntza batzuk sartuz. Aipatu den bezala, oinarritzko eskubideak bermatzea helburu daukan akordio honek, informaziorako sarbidea ere ez du alde batera uzten. Horrela, aitortzen du: “Europar Batasuneko biztanle orok eskubidea izango du Parlamentu, Kontseilu eta Komisioaren dokumentuetara sartzeko”.

2000. urteko martxoan, “*Europako Gobernantzaren Liburu Zuria*” argitaratu zenean, Europako Batzordeak Administrazio Erreformaren Liburu Zuria bereganatu zuen; bertan, Europako administrazio publikoak ondorengo printzipioak izan beharko lituzkeela azpimarratzen zen: zerbitzua, independentzia, erantzukizuna, kontuak ematea, efizientzia eta gardentasuna.

Europar Batasunak administrazio on baterako eskubidea hurrengo moduetan ulertzen du: pertsona guztiek daukate eskubidea batasuneko instituzio eta organoek gaiak inpartzialtasunez eta bidezkotzat jorra ditzaten, zentzuzko denbora tarte baten barruan; pertsona guztiek entzunak

izateko eskubidea daukate; pertsona orok eskubidea izan behar du dagokion espedientearen informazioa ezagutzeko, modu konfidentzial eta profesionaltasun eta komertzio sekretuaren barnean; administrazioaren betebeharra: bere erabakiak motibatzea; pertsona orok dauka eskubidea instituzioek edo agenteek, beraien funtzio jarduteetan, sor diezaiokeen kalteak Komunitateak konpontzeko; eta, beharra duen pertsona orok jo dezake Europar Batasuneko instituzioetara, Tratatueta edozein hizkuntzatan eta honek, erantzun bat jaso beharko du hizkuntza berean.

Espainiari dagokionez, 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, *gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa*, edozein akzio politikoren funtsezko ardatza da. Modu honetan, herritarrek jakin dezakete nola hartzen diren beraien zuzenean eragiten dieten erabakiak.

Lege honek, hiru helburu ditu: jarduera publikoan gardentasuna hazi eta indartzen du, informaziorako sarbidea aitortu eta bermatzen du; eta azkenik, ordezkari publikoek bete behar dituzten gobernu on baten betebeharrak ezartzen ditu, baita betetze ezak dakartzan ondorio juridikoak ere.

Espainiako Ordenamendu Juridikoan estilo honetako betebeharrak jasotzen diren arren, erregulazio hori ez da nahikoa gaur egungo gizartean. Horregatik, "*gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onaren legearekin*", publizitate aktiboaren betebeharrak zenbait alorretan aldatu nahi dira: informazio instituzionala, antolatzailea eta planifikaziozkoa.

Lege honen bitartez, Gardentasun Atari bat sortu eta garatuko da. Gaur egun, teknologia berriek erabilera handiko tresnak sortzen laguntzen du, eta horrela, herritarrak sarean dagoen informazio guztia eskura dezake. Modu horretan, legeak ere informazio publikorako sarbiderako eskubidea erregulatzen du. Horrela, aurreikusten diren aurrerapenak dira: gardentasun kultura baten ezarpena administrazioaren modernizazioa ekarriz, parte-hartzea errazteko karga burokratikoaren eta medio elektronikoen lanaldia gutxitzea; gardentasuna eta informaziorako sarbidea.

Antolakuntza horretan Gardentasun Batzordea sortu zen gardentasunak bete behar dituen baldintzak kontrolatzeko. Baldintza horiek dira: ustelkeriatik prozesatutakoen eskusioa hauteskunde zerrendetatik; hauteskunde zerrenden desblokeatzea; kargu politiko guztien ondasun, ondare eta interesen deklarazio eta publizitatea; alderdi politiko eta hauteskunde kanpainen finantzazioaren inguruko lege erreforma; eta alderdi politikoen partetik kontuak ematearen derrigortasuna, gehienbat hauteskunde kanpaina eta horren gastuetan.

"Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legea" herritarren kontsulta eta proposamenpean jarri zen. Hain zuzen ere, Internet bidezko kontsulta publikoa eman zen iritzi jasotze prozesuan; 80.000 hiritarrek parte hartu zuten eta 3.500 ekarpen egin zituzten. Proposamen horietako batzuk testura erantsi ziren eta etorkizuneko legearen disposizioen hobekuntza suposatu zuten.

Espanian, zein beste tokitan, beharrezkoak dira administrazio gardenak. Paradoxikoa izan arren, informazio gizarteetan gardentasun gutxiko informazioa eskaintzen da. Aldiz, ohikoa da botereek opakotasuna bilatzea informazio ugari plazaratuz. Horregatik, gardentasunak suposatzen du gobernatzen duenak datu horiek emateaz gain, datuok guztien eskura jartzea modu ukiezinean.

Espainiako administrazioak jasotzen dituen balore etikoen artean daude: "inpartzialtasuna, objektibotasuna, neutraltasuna, legalitatea, efizientzia, justizia, interes publikorako zerbitzuak eta gizarteari orokorrean eskaintzen zaizkion zerbitzuak. Espainiak ez, baina, beste herrialde batzuk bai sartzen dituzten balore etikoak dira: zintzotasuna, segurtasuna, gardentasuna, informaziora sarbidea, zuzentasuna, erantzukizuna, kontuak ematea, konfidentzialtasuna, sekretu ofizialei errespetua, profesionaltasuna, interes pribaturik ez egotea, Estatuarekiko leialtasuna, jatortasuna eta humanitatea" (De Miguel, Ribes, De Miguel eta De Val Segarra; 2007: 5-6.orr).

Espainiako gobernuari erreparatuz, "Gobernu Onaren Kodea" aspalditik ezarrita dago. 2005ean Ministroen Kontseiluko Akordioa argitaratu zen, non, "Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko kargu altuko kideen Gobernu Onaren Kodea" ezartzen zen. Horrez gain, 2007ko apirilaren 12an, Langile Publikoaren Estatutuko VI. kapituluan ezartzen da Portaera Kode batzuk aplikatzea beharrezkoa dela printzipio etikoak dituzten langile publiko guztiei.

Europar harturiko erabakiak, gardentasunaren aldarrikapenaren agindu politiko horrek Espainiako Gobernuari eta bere erakundeei eragiten dien moduan, *Espainiako Gobernu Onaren Kodea* autonomia erkidegoetako administrazioetara ere heldu da. Baita "Gardentasun, informazio publikorako sarbide eta gobernu onaren legea" ere; bada, autonomia erkidegoek eta entitate lokalek bi urteko epea daukate legean ezartzen diren betebeharrak moldatzeko.

Modu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak martxan jarri du "Euskal sektore publikoaren gardentasuna, herritarren partaidetza eta gobernu onaren" lege proiektua.

Legearen I Tituluan, "Xedapen Orokorrak", sektore publikoaren funtzionamendua gidatuko duten oinarrizko funtzioak agertzen dira. Alde batetik, konkretutasuna eta garapen; eta bestetik, administrazio on baterako eskubidea.

II Titulua, "Politika Publikoen planifikazio eta ebaluazioa", "Gobernu Planaren" definizio batekin hasten da. Helburua da, gobernuaren ekintza denboran proiektatzea, sozializatzea eta bere konpromisoaren eta herritarren aurreko erantzukizunaren oinarriak ezartzea.

III Tituluan, gardentasun material behartuak dauden subjektuak, publizitate aktiboa, informazio publikorako sarbidea eta zehapen-araubidea agertzen dira.

IV Tituluan, herritar parte-hartzea eta prozesu parte hartzaileak zehazten dira.

Azkenik, V Tituluan, gardentasun eta gobernu ona lortzeko asmoz dauden instituzio eta organismoak zeintzuk diren zehazten da. Horien artean daude:

Gardentasunaren Euskal Agentzia-Gardena, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eta interes taldeen ordezkarien parte-hartze eta kolaboraziorako erregistroa eta azkenik, Gobernu Ireki Plataforma (Irekia).

Legearen xedea da: gardentasuna, administrazioko publizitate aktiboa, gobernu ona eta informazio publikorako sarbiderako eskubidea, politika publikoen ebaluazioa eta erabaki hartzeetan parte-hartze publikoa ahalbidetzea.

Horrela, bigarren artikuluan, ondorengo helburuak nabarmentzen dira: gobernuaren planifikazioaz eta bere konpromiso estrategikoen inguruan herritarrak informatzea, publizitate aktiboko printzipioa finkatuz; adierazgarriak diren datuak argitalpenak formatu irekian eskaintzea; herritarren informazio publikorako sarbidea sustatzea, administrazio orokorrean eta horri lotutako entitate eta organismoetan jarduteko gaitasuna izango duena; politika publikoen ebaluazioa sustatzea, ebaluatzeko betebeharrari eta ebaluazioaren emaitzak komunikatzeko betebeharrari dagokionez; gai publikoetan kultura eta parte-hartze ohituren sorrerari mesede egitea; zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia bermatzea; eta, horrela, zerbitzuen eskaintzan balio publikoak sortuko dituzten tresna eta prozesuak ezartzea.

Legeak 17 elementu ezartzen ditu: legitimitate demokratikoa, jasangarritasuna, elkartasuna, aurre hartzea, hizkuntza normalizazioa, "politika eta zerbitzuen programazio, planifikazio, kontrol eta ebaluazioa", kudeaketa erantzukizuna, objektibotasuna, koherentzia, parte-hartze eta kolaborazioa, gardentasuna, publizitate aktiboa, erabilerraztasun printzipioa, bakuntasun eta ulergarritasuna, neutraltasun teknologikoa, eraberritze publikoa eta amaitzeko, etengabeko hobekuntza.

Euskal Sektore Publikoaren gardentasunean (III Titulua), gardentasunaz gain garrantzia handia ematen zaio informazio publikoaren kalitateari. Titulu honek bilatzen duena da, gardentasuna, informazio publikoa, egiazkotasuna, irakurterraza izatea, datuen irekiera eta berrerabilpena.

Finean, EAEko sektore publikoak ondorengo aspektuen inguruko informazioa argitaratu beharko du: instituzio eta antolakunde informazioa;

planifikazio eta ebaluazioari buruzko informazioa; adierazgarritasun juridikoko informazioa; intzidentzia ekonomikoa duen ekintza administratiboari buruzko informazioa; kontratuen inguruko informazioa; ekintza publikoaren inguruko informazioa; ekonomia, aurrekontu eta patrimonioaren inguruko informazioa; eta, informazio orokorra.

Europako Gobernantzaren Liburu Zuriak oinarrizko printzipio batzuk ezartzen ditu, gero estatu bakoitzak garatu ditzan. Espainiako estatuari dagokionez, "19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa", aurrerapauso bat izan arren ikusten dugu publikatzen ari denak ez dituela herritarren beharrak asetzen. Horrez gain, legeak berak ez ditu egin zituzten aurreikuspenak bete; izan ere, gardentasunerako politikak egokiak edo herritarren beharrei egokitzen diren arren, Espainiako arazoa da ez dagoela mekanismo ebaluatzaile erantzule bat.

Autonomia erkidegoek eskumena daukate beraien administrazio erakundeei dagokionez gardentasun lege bat sortzeko. Nahiz eta oraindik gardentasun legerik ez izan, Eusko Jaurlaritza lege proiektu bat izapidetzen ari da: "*Euskal Sektore Publikoaren gardentasuna, herritarren partaidetza eta gobernu onaren lege proiektua*". Hala ere, 2009. urtetik hainbat kanal ezartzen ari da, non, *Europako Gobernantzaren Liburu Zuriaren* gomendioak implementatzen saiatzen den (Irekia, Open Data Euskadi eta abar). Plataforma horiek, lege proiektuan ere agertzen dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren lege proiektua Espainiako araudiaren barnean kokatu beharko da. Ondorioz, erkidego bakoitzak aukera dauka bere legea herriaren nahi, behar eta egoerari erantzuteko.

4.2 EUSKO JAURLARITZAK GARDENTASUNERAKO ERABILTZEN DITUEN TRESNAK

Legez gardentasunaren printzipioa onartzen den bitartean, gobernuak dagoeneko Europako eta Estatuko aginduak aterki gisa izanda eta nazioarteko mailan eman diren aurrerapausoak kontuan izanik, hartu ditu dagoneko zenbait neurri. Era honetara, Konpromiso horren garapenean, Eusko Jaurlaritzak hurrengo proiektuak eta ekimenak erabiltzen ditu gardentasuna printzipioa lortzeko:

- Euskadi.eus: 2004ko abenduan abian jarri zen euskadi.net, orain izena aldatu arren. Horrek, Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde publikoen web orrialdeak biltzen ditu. Atariaren egitekoa, administrazioaren informazio eta zerbitzuen sarbidea erraztea da, sarrera bakar eta erraz bat eskainiz.
- Irekia: 2009an onartu zen Irekia marka eta honen zeregina da, Gobernu Irekiaren filosofia (Open Government) ezartzea, herritarren parte-hartzeari dagokionean.
- Open Data Euskadi: datu publikoen irekiera proiektuari hasiera eman zitzaion 2009an, Open Data Euskadi deitua. Horren betebeharra, sektore publikoko informazioaren berrerabilpena zen. Ekimen honen helburua da administrazio publikoak bere boterepean dituen datuak askatzea, kudeaketa publikoko garapen ekonomikoa eta gardentasuna sustatzea.
- Kontratatzailearen profila: 2010ean aurkeztu zen kontratatzailearen profila: lizitazio eta bere emaitzetarako Internet bidezko plataforma elektronikoa, publizitaterako erabilia. Horrez gain, botere publikoek dituzten kontratuekin harremanetan dagoen informazio esanguratsua ere jasoko da profil horretan.



- Gardena: 2011ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak Gardena izeneko ataria kaleratu zuen. Zeharkako proiektu honen egitekoa gardentasuna sustatzea da Eusko Jaurlaritzako entitate eta sail publiko guztietan, herritarrek eskatzen duten informazio guztia errazteko: barne antolaketa, finantza eta ekonomia informazioa, kontratazioak eta berak dituen plan eta proiektu guztien inguruan.
- Informazio publikorako sarbiderako eskubidea. 2015. urteko urtarrilaren 13an, herritarrak informazio publikorako sarbidea izateko eta publizitate aktiboko eskubidea inplementatu zen.
- Legegunea: garrantzi juridikoa duen dokumentazio guztia biltzea du helburu, eta hori herritarrei modu antolatu eta sarbide erraz eta garbiekin zabaltzen dion araudiaren euskal ataria da.

Aurreko lerroetan aipatutakoaren harira, Eusko Jaurlaritzak gobernu ona eta honen gardentasuna lortzera bidean, goiko proiektu horiek erabiltzen ditu. Hala ere, lan honetan azpimarratzea interesatzen diren tresna eta plataformak, Legegunea, Open Data eta Gardena dira. Horregatik, Euskadi.eus, Irekia, Informazio Publikorako Sarbiderako Eskubidea eta Kontratatzailearen Profilaren analisia alde batera utziko da. Izan ere, Euskadi.eus hasieratik dagoen plataforma bat da, proiektuaren aurretik existitzen zena. Irekia eta Informazio Publikorako Sarbiderako Eskubidea, hiritarren aktibotasuna eta populazioaren parte-hartzearekin lotutako proiektuak dira, zeinak, analisi honekin zerikusia duten, baina, gardentasun printzipio orokorretik aldetzea eragingo luketen. Azkenik, Kontratatzailearen Profila, azterketa honetatik kanpo geratzen da, Jaurlaritzak garatzeke duen neurria den heinean bertan hartu diren neurriei sarbidea konplexua zelako.

Legegunea, Open Data eta Gardena plataformak, gehiago hurbiltzen dira analisi honen muinera, hiritarrek administrazioarekin harremana izan gabe eskuragarri dagoen informazioa eskaintzen dutelako. Hiru horiek, aurretik administrazioak bere esku zituen datuak berrantolatzeke web orrialdeak dira eta kasu gutxitan gehitzen dira datu gehiago.

Hurrengo lerroetan, azken hiru proiektuen analisia burutuko da; azkenik, marko teorikoan aipatutako kontzeptu eta teorien arabera Eusko

Jaurlaritzaren gobernu onaren eta gardentasunaren egitura eta eraginkortasunari kritika bat egiteko asmoz.

LEGEGUNEA

Legegunea, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak bultzatutako proiektua da, euskadi.eus-ek eskaintzen dituen edukien kalitatea hobetzeko helburua duena. Horrela, herritarrentzat eskuragarri jarri nahi ditu autogobernu sistematik sortutako euskal zein estatu mailako eskumen-arlokoak diren eduki arauemaileak eta Eusko Jaurlaritzak burutzen dituen ekintza eta jarduera administratiboak.

Horien barruan azpimarratu daitezke: Aholku Batzorde Juridikoaren informe eta irizpenak; Gobernu Kontseiluak ematen dituen akordioak; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaritik (EHAA) esportatutako eduki normatibo eta legegintzazkoak; Estatuko transferentziak; Euskadi.net-en aurkitzen den eta indarrean dagoen arautegia (arau fiskal eta foralak); zuzenean ezarritako eduki berriak (beste xedapen orokorra, ebazpenak eta ekintza administratiboak); zirkularrak, argibideak eta zerbitzu aginduak; kontsulta juridikoak; informe juridikoak; lege aurreproiektuak, haien memoria eta informeeekin; Dekretu Legegileen proiektuak, memoria eta informeeekin; dekretuen proiektuak, memoria eta informeeekin; aginduen proiektuak, memoria eta informeeekin; ebazpenen proiektuak, memoria eta informeeekin; hitzarmen, protokolo eta kontratuak, izenpetutako programetan; kudeaketaren aginduak; bitarteko propioari barne esleipenak.

Ekimen horrek bilatzen du gardentasun eta parte-hartze printzipioei erantzuna ematea, administrazioaren jarduera inspiratu eta informatuko dutenak, Herritarren Eskubideekin bat etorritz, zeinak urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Prozedura Komunari buruzkoa, 13.d) artikuluan ezarrita dauden. Eskubide eta betebeharrak horiek egungo informazio eta komunikazio teknologien bitartez erantzungo dira. Garai horietara egokitutako administrazio batek, perspektiba horretatik, behar du

komunikazio elektronikoaren erabilera bermatzea herritarren onurarako, Konstituzioko 103. artikuluan aldarrikatzen den eragingarritasun printzipioak zuzenduta eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Prozedura Komunari buruzkoa, agertzen diren preskripzioekin bat etorritik.

Hortaz, informaziorako sarbidea errazteko, proiektuak web orrialde bat sortzea ekarri zuen: Legegunea. Bertan, herritarren eskura egongo dira Eusko Jaurlaritzak sortutako arauak eta gobernuak sortutako legeriak. Legegunearen egitekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak sortu edota garatzen duen garrantzi juridikoko informazioa eta herritarren arteko harremana sustatzea. Honen bitartez bermatzen da informazioa eskuragarria izatea, erabilgarria izatea eta aurkitzeko erraza izatea; etengabean eguneratua izatea eta bere ordena hierarkiko eta kompetentzietan erlazionatua egotea, baita osagarria den bibliografiarekin ere; eta, gardentasuna, parte-hartzea eta informazioaren printzipioekin bat etortzea.

Bide horretatik, Legeguneak dituen helburuak horrela izendatzen dira euskadi.eus web orrialdean:

- *Informazioaren kalitatea hobetzea, arlo juridikoan segurtasun gabezia ekidinez: argitaratzen diren edukiak modu ziurrean, osorik eta eguneratutakoak direla ziurtatzea; eta Interneten informazioa erakustea modu eskuragarri eta agerikoan.*
- *Herritarrek gauzatu nahi dituzten proiektuei, jardueri edo eskakizunei indarreko xedapenek jartzen dizkieten baldintza juridikoei edo teknikoei buruzko orientazio- eta informazio-eskubidearen betearazpena hobetzea, haiek jakinarazterakoan..*
- *Aipatutako interes publikoko arrazoiei jarriki, ekintzen eta xedapenen informazio printzipioa betetzea, Konstituzioko 9.3 artikuluan ezarritako Arauen publizitatearen xedapenaren babesean.*
- *Administrazio Publikoaren gardentasuna eta parte-hartzea sustatzea, fede onaren eta konfiantza legitimoaren eta erakundeen arteko*

leialtasunaren printzipioak errespetatuz (urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1. d) artikulua).

- *Herritarrentzako informaziorako sarbidea hobetzea: edukien bilatzea eta ezagutza hobetzea, Euskadi.eus bilatzaile orokorrean integratuta; Euskadi.eus ataritik sarbidea eskaintzea. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren edozein ekimenen edukien berrerabilpena bermatuz, baita EAEko edozein instituziotakoak ere; eta, garrantzia juridikoa duen informazio guztia batzen duen web orrialde bat sortzea.*

Helburu horiek betetzeko asmoz, web orrialdean informazioa hiru ataletan argitaratzen da: araudia, eskumenak eta transferentzia eta garrantzi juridikoa duen dokumentazioa. Lehengoan, **araudian**, eduki arauemaileak hizkuntza juridikoan aplikazioko araudiak deitutakoak aurkituko dira. Horien artean, hierarkiaren arabera ordenatuta, honako hauek aurki ditzakegu, besteak beste: Konstituzioa, Lege Organikoa, Legea, Oinarri Legea, Dekretu Legegilea, Lege Dekretua, Errege Dekretua, Dekretua, Agindua, Ebazpena, Zirkularra, Zerbitzu Argibideak eta Aginduak.

Euren eskumen esparrua EAEko legeriarena eta aplikatzen zaion estatuko legeriarena izango da, edota 149.3 CE artikuluan ezarritako osagarriarena. Gainera, familia horren edukiak euren artean erlazionatuta egon daitezke (adib: Dekretu batek aurreko beste Dekretu bat aldatu edo Lege bat garatu dezake, Ebazpen batek Dekretu bat interpretatu dezake, etab).

Bestetik, **Eskumena eta transferentzia atalean**, Eduki mota horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa Euskadiko Autonomia Erkidegoari aitortzen dizkion eskumenak hartzen ditu barne, Konstituzioko 148. artikuluari jarraiki. Era berean, gure Autonomia Estatutua garatzeko ondoren transferitutako eskumenak sartzen dira barne: Konstituzioko 149.3 artikuluan ezarritako aurreikuspenari jarraiki, bai eta 150. artikulua arabera transferitutakoak, emandakoak edo delegatutakoak ere (jadanik gauzatzen dituenak, zein transferitzeke daudenak). Halaber, eskumen bakoitzaren egoera hartzen du barne eta, ondorioz, EAEk bere gain hartutako funtzioak eta zerbitzuak ere.

Azkenik, **garrantzia juridikoko dokumentazioan**, garrantzi juridikoko dokumentazioari buruzko edukiak EAEko legedia ulertzeko, osatzeko, justifikatzeko eta interpretatzeko laguntza dira, baita Eusko Jaurlaritzaren administrazio-egintza eta -jarduera jakin batzuen berri izateko laguntza ere. Azpimarragarriak dira, besteak beste: jurisprudentzia; ebazpen judizialak (Epaiak eta Autoak); Nazioarteko Hitzarmenak; irizpenak; txostenak; zirkularrak, jarraibideak eta zerbitzu-aginduak; kontsulta juridikoak; txosten juridikoak; lege-aurreproiektuak, memoria eta txosten eta guzti; lege-dekretuen proiektuak, memoria eta txosten eta guzti; dekretu-proiektuak, memoria eta txosten eta guzti; agindu-proiektuak, memoria eta txosten eta guzti; agindu-proiektuak, memoria eta txosten eta guzti; sinatutako hitzarmenak, protokoloak edo programa-kontratuak; kudeaketa-mandatuak; berezko bitartekorako barne-esleipenak; doktrina; kontratuen inguruko errekurtsoen administrazio-organoaren ebazpenak.

OPEN DATA

Open Data, 2009an sortutako Euskadiko Gobernu Irekiaren politikaren ekimen bat da. Honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak bere esku dauden datu publikoak ikusgai jartzen ditu berrerabiltzeko asmoz, eta horrela, datu horietatik eratorritako zerbitzuak sortzeko. 2.000 datu pakete baino gehiagorekin, Euskadi erreferente bat da edozein motako informazioa publikatzen, hala nola: gobernuaren jarduera politikotan, gizarte gaietan, kulturen, hezkuntzan, osasunean, aisialdian, garraioan...

Honen helburuen artean aurkitu ditzakegu: "balioa eta aberastasuna sortzea. Enpresek, infobitartekariak eta, oro har, herritarrek datuetatik eratorritako produktuak lortuz"; "gardentasuna administrazio publikoan. Ikusgai jarritako datuak berrerabiltzeko aukera emanez, kudeaketa publikoa aztertzeke eta ebaluatzeke"; "administrazioen lankidetzak. Herritarrentzat administrazio publikoen datuak erabiltzen dituzten zerbitzuak sortzen

lagunduz”; eta, “administrazioaren informazioaren barne-antolaketa. Dokumentazio eta datuen sailkapen eraginkorra bultzatuz”.

Publikatutako datu horiek, hiru talderi interesatzen zaizkiela aipatzen da euskadi.eus webgunean. Lehenengoa, ekimen pribatuko taldea da: helburu komertzialak dituzten zerbitzuak, herritarrentzat balioa sortzen laguntzen duten horiek. Bigarrena, beste administrazio publiko batzuenak: herritarrentzako zerbitzu horizontal erabilgarriak direnak, administrazio eskudunetatik datorren informazioarekin. Eta azkena, administrazio publikoen gardentasuna bultzatzeko interesa duten eragileak: kudeaketa publikoa aztertzeke eta ebaluatzeke ekimenak.

Datuak berrerabiltzeke orduan, Open Datak hainbat puntu kontuan izan behar direla azpimarratzen du:

1. Erabilera lizentzia. Lizentzia ireki horien bitartez eskaintzen dira datu-multzoak plataforma honetan. Hala ere, datu motaren arabera desberdintasun batzuk aurkitu ditzakegu, eta horregatik zehazten dira erabilera baldintzak fitxa bakoitzean.
2. Informazio teknikoa. Katalogoan aurkitzen diren datuek ezaugarri tekniko eta formatu ezberdinak dituzte, eta horrela, ezagutza maila ezberdinak eskatzen dituzte berrerabiltzean. Beraz, Open Data Euskadik datu-multzo talde handiak sailkatu ditu ezaugarri teknikoen arabera:
 - a. Estatistika datuak: EUSTATEko estatistiken zerrenda, Lanbideko estatistiken zerrenda eta azkenik, Eusko Jaurlaritzako sailen estatistiken zerrenda topa dezakegu.
 - b. Euskadi.eus-eko datuak. Eduki horiek anitzak dira: laguntzak, diru-laguntzak, kontratuak, ekitaldiak, albisteak, turismoaren inguruko informazioa. Edukiok Eduki Kudeatzaile baten bitartez argitaratzen dira Interneten eta automatikoki Open Data Euskadira pasatzen dira. Gainera, datu guztiak lortzeke Euskadi.eus-eko APIaren bidez sartu eta bilaketa emaitza zehatzak pertsonalizatu daitezke.
Euskadi.eus-en azpiegiturarekin harremana duten beste elementu batzuk: dokumentazio teknikoaren laburpena,



Euskadi.net-en edukien eredia eta eduki motaren arabera metadatu komunak eta partikularrak, URLen egitura, DataSet delakoaren fitxa deskribatzailea, Euskadi.net-eko bilatzailea eta bilaketen emaitzen berrerabiltzea eta azkenik, DataSet delakoaren egitura.

- c. Negozio datu-baseetatik datozen datuak. Beharrezkoa da Open Data formatuetara esportatzeko aldizkakoak eta automatikoak diren prozesuak erabiltzea. Datu horiek, honako ezaugarriak dituzte: sarri eguneratzen dira; formatuak: csv, xml edo formatu semantikoak; eta, batzuetan fitxategiak ZIP batean konprimitzen dira datu kopuru handiagatik, dena den, fitxategi bakoitzean sartzeko URL iraunkorra mantentzen saiatzen dira.

Talde honetako datu-multzo batzuk: kontsumo uren kalitatea, airearen kalitatea, eguraldi datuak, trafiko gertaerak, polenaren neurketak, goi-kargudun eta erakunde publiko zein pribatuei buruzko datuak...

- d. Datu geografikoak. Izaera berezia dutenez, formatu espezifikotan eskaintzen dira eta askotan software berezia behar da berrerabili ahal izateko. Datu hauek erabiltzeko, Geoeuskadi webgunearen laguntza gomendatzen du.

2016ko aurrekontuetako memorieta agertzen den bezala, Open Datan argitaratzen den dataset kopurua %10ean haztea iragartzen da. Beraz, esan daiteke gardentasunera bidean edukiak eta baliabideen gorakada aurreikusten duela Eusko Jaurlaritzak.

Finean, Open Data berrikuntza eta administrazio elektronikoaren menpe dagoen plataforma irekia da, eta honetara bideratutako aurrekontua 2016. Urtean 400.000€koa izan da.

GARDENA

Gardentasuna, herri-administrazioak landu eta bete behar duen gizarte-eskakizuna da. Administrazioaren egitekoa informazioa prozesatzea da; izan ere, informazioaren inguruan balio ekonomikoa sortzen da eta informaziorik egoten ez bada, botere-harreman asimetrikoak sortuko dira. Horrez gain, Internet eta gizarte-sareen sortzearekin, administrazio eta herritarren arteko harreman-esparrua birdefinitzen ari da, eta modu horretan, herritarren protagonismoak gora egin du.

Hori horrela, 2011tik Gardenaren egitekoa Eusko Jaurlaritzako entitate eta sail publikoen gardentasuna sustatzea da. Beraz, Gardenaren helburu eta funtzioa Eusko Jaurlaritzak esleitzen duen informazioa berrantolatzea da, nazioarteko erakundeak diotenaren arabera. Hala, webgune horri tresnak eta atari berriak gehitzen joan zaizkio.

Gardena plataforman, hainbat atal aurkitu dezakegu. Lehenengoa, Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa da, eta bertan ondorengo elementuak sartzen dira: lehenik, organigramak eta arduradun publikoak, goi-kargudunen eta legebiltzarkideen agenda eta estrategia-planifikazioa eta honen jarraipena. Bigarrenik, herritar eta gizartearekin dauden harremanak: zerbitzuen katalogoa eskaintzen da, gizarte partaidetza, kontseilu eta erakundeak, eta bestalde, kexak eta iradokizunak bidaltzeko postontzia. Hirugarrenik, gardentasun ekonomikoa eta finantzarioa daukagu, administrazioaren urteko kontuekin, aurrekontu orokorrekin, aurrekontua betearaztearekin osatzen dena. Laugarrenik, obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea dago: lizitazioen ebazpena ematen delarik, kontratuen erregistroarekin eta sinatutako hitzarmenekin (sinatzaileak, objektua eta betebeharrak ekonomikoa). Azkenik, lurralde antolamendua, hirigintza eta herrilanak agertzen dira: lurralde antolamenduko plana, ingurumenaren babes-planak eta natura-baliabideen antolamendua, eta egiten ari diren azpiegitura-obra estrategikoak. *Transparency International España*-ren ebaluazioaren arabera, Euskadik lehenengo postua lortu du egiten ari diren Autonomia Erkidegoen gardentasun mailaren ebaluazioan.

2010. urtean, 14 postuan aurkitzen zen eta 2014an lehenengoa izatera pasatu da.

"Indize honek 80 adierazle hartzen ditu kontuan eta 5 talde desberdinetan partekatzen ditu. Hona hemen Euskal Autonomia Erkidegoak lortutako emaitzak puntuazioari eta rankingari dagokionez":

1. Taula: Transparency International España- Euskadi

URTEA	EUSKADIREN POSTUA RANKINGEAN	EUSKADIK LORTUTAKO PUNTUAZIOA (GEHIENEZ 100)	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA ERKIDEGOEN ARTEAN
2010	14. postua 17ren artean	57.5 puntu	71.5 puntu
2012	1. postua 17ren artean	97.5 puntu	79.9 puntu
2014	1. postua 17ren artean	100 puntu	88,6 puntu

Iturria: <http://www.gardena.euskadi.eus/orokorra-gardentasuna/-/incau-ebaluazioa/>

Euskal Autonomia Erkidegoan, hainbat administraziok sortu dituzte gardentasunerako atariak, haien herritarrei informaziorako sarbidea izateko eskubidea bermatzeko. Horien artean ditugu: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala, Getxoko Udala, Barakaldoko Udala, Irungo Udala, Etxebarriko Udala, Basauriko Udala, Elorrioko Udala eta Zallako Udala.

Herritar guztiok daukagu Herri Administrazioak eskaintzen duen informazio publikora sartzeko eskubidea, eta eskubide hori erabiltzeko bi aukera daude: informazioa publikatzea eskatzea eta informazio publikora sartzea.

Ikusten denez, Open Data, Gardena eta Legegunea atariak, informazio teknologietan oinarritzen dira. Bertan, informazioa modu errazean eta antolatuan sartzen da administrazioaren aldetik eta herritarren aldetik ere ezagutzeko modu bizkor eta erraza da.

Hiru plataforma horiek, herritarren informazioa errekonozitzeko eskubidea, datuak publikatzea eta legeen publikazioa ahalbidetzen dute. Horrela, gobernuak EAEko gardentasunaren printzipioa betetzen saiatzen da.

4.3 HERRITARREN IRITZIA GARDENTASUNARI DAGOKIONEZ

Gardentasunaren bitartez herritarren konfiantzaren hazkundera eman daitekeela jakinik, eta hori zein beste elementu batzuen bitartez gobernu on baten sorrera ahalbidetu daitekeela jakinik, hurrengo lerroetan gai horiei buruz egindako zenbait ikerketa azalduko da. Estatuko Administrazio Orokorraren Gobernu Onaren Kodeak hutsune bat bete zuen espainiar herritarrekiko konpromisoan, jendeak klase politikoarekiko konfiantza eza zuen momentu kritiko batean.

CIS-eko barometroaren datuei dagokionez (2007ko urtarrila-otsaila), herritarren %80 inguruk uste zuen Espainiako egoera politikoa erregularra, txarra edo oso txarra zela, eta %70ak uste zuen ez zela ezer aldatu aurreko urtearekin alderatuz. %70ak zioen politikoak ez zirela arduratzen herritarren egoeraz eta politikak gehien sortzen zituen sentimenduen artean, axolagabetasuna, aspergarritasuna eta konfiantza eza zeuden. Espainiar estatuari erreparatuz, Administrazio Publikoen funtzionamendua hobea dela %25.9ak uste du, berdina dela %28.3ak eta okerragoa dela %29.3ak.

Herritarren %71.4ak uste du Administrazio Publikoen kudeaketetan herritarrek zailtasunak dituztela. Izan ere, tramiteak ebazteko moteltasuna handia dela uste du inkestatutakoen %31.3ak, burokrazia larregi dagoela %24.4ak, zein erakundetara joan behar den zaila dela uste dutenak %17.6a dira eta azkenik, hizkera zaila erabiltzen dela %13.9ak uste du. Hala ere,

herritarren %65.9ak bere tramite eta kudeaketak berak egiten ditu eta nahiago du pertsonalki egitea. Gainera, kudeaketa horietarako informazioa behar denean, herritarren %58.9ak Internetera jotzen du, %11.3ak administrazio orokorraren informazio orrialdeetara; eta amaitzeko, %28.9ak zerbitzuaren arduraduna den erakundearen orrialdera.

Espainiako Administrazio Publikoen funtzionamenduaren inguruan, herritarren iritzia da:

2.Taula: Herritarren iritzia Espainiako administrazio publikoen funtzionamenduarekiko.					
	1-2	3-4	5-6	7-8	9-10
Erraztasuna	%20.5	%29.1	%34.3	%9.8	%1.1
Erantzuten ardatzen dutena	%27.7	%32.1	%25.7	%7.4	%1
Zentro eta zerbitzuak aurkitzeko erraztasuna	%7.3	%15.3	%37.9	%29.2	%5.4
Informazioaren argitasun eta erabilgarritasuna	%17.2	%26.2	%35.9	%12.7	%2.1
Interneten bidez bulegoekin komunikatu ahal izateko erraztasuna	%6.1	%10.3	%22.4	%19.4	%5.3

Iturria: CISeko barometroa. 2007ko urtarrila-otsaila

Datu horiek adierazten dute herritarrentzat ez dela oso erraza estilo honetako plataformak erabiltzea beraien kudeaketak burutzeko. Izan ere, zentro eta zerbitzuak aurkitzea eta informazioaren ulergarritasun eta erabilgarritasuna erraza eta ona den arren, administrazioaren funtzionamendua ez dela egokia uste du herritarren gehiengoak. Hau da, kudeaketak egiteko unean, zailtasunekin aurkitzen dira inkestatutako pertsona horiek, eta horrela, administrazio publikoen funtzionamenduaren ebaluazioa kaltetuta agertzen da.

Interneten erabilera oso normalizatua izan arren, aipatzekoa da administrazio publikoaren kudeaketaren bat egin duten herritarrak %47.4a soilik direla, erabili ez dutenaren %50.9aren aurrean.

Informaziorako sarbide eta Interneten erabileraz aparte, gardentasuna Espainian indarrean jartzen ari den printzipioetako bat dela jakinik, adierazgarria da azalaraztea soilik inkestatutakoen %35.3ak entzun duela zerbait gardentasunaren legearen inguruan, eta %64.4ak ziurtatzen duela ez duela horren inguruko ezer entzun.

Horri buruz entzun dutenen artean, gehienak legea oso positiboa edo nahiko positiboa izango dela uste du. %34.4ak uste du garrantzitsuena dela betebeharrak betetzen ez dituzten horiei santzioak ezarriko zaizkielako; %27.5ak administrazio publikoen baitako informaziorako sarbidea erraztuko dela; %17.9ak printzipio etikoak ezarriko zaizkiela gestore publikoei, eta azkenik, %8.6ak uste du legearen zati garrantzitsuena dela publizitatearen betebeharrak handituko direla.

Eusko Jaurlaritzaren egoera nabarmentzea denez helburua, Prospekzio Soziologikoetarako Kabineteak burututako hainbat ikerketa batu eta aztertuko dira, herritarrek Eusko Jaurlaritzarengan duten iritzia eta pertzepzioa ezagutzeko asmoz. Ikerketa horietatik nabarmentzekoak iruditu zaizkit ondorengo datuak:

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren %50ak soilik dauka konfiantza Eusko Jaurlaritza berrian, eta orokorrean, nahiz eta gobernu aldatu berdin mantentzen dira pertzepzioak.

Gobernu Kudeaketaren ikerketak azaltzen duen bezala, Eusko Jaurlaritzaren instituzioetan dagoen konfiantzari dagokionez, %31k esan du nahikoa fidatzen dela eta gutxi fidatzen dela %45ak. Espainiako Gobernuari erreparatuz, nahikoa konfiantza %15ak soilik dauka, gutxi %47ak eta ezer ez %31k. Azkenik, Europar Batasunaren instituzioetan, EAEko populazioaren %24k nahikoa konfiantza du, gutxi %41ak eta ezer ez %20ak.

Eusko Jaurlaritzarengan dagoen konfiantza maila, 4.2koa da 10etik, eta beraz, ez gairatzen eman dezakegu. Hau da, EAEko herritarrek ez dira oso gustura sentitzen bertako gobernuarekin eta honek egikaritzen duen funtzioarekin.

Gobernuaren kudeaketari erreparatzen dion ikerketa, 2010. urtean burutu zen eta honen arabera, azken urtean gobernuarengan dagoen konfiantzak horrela eboluzionatu du:

- Hazi egin da: %8
- Gutxitu egin da: %34
- Berdin mantendu da: %52
- Ez daki ez du erantzuten: %6

Galdeketa erantzun duen gehiengoak uste du Eusko Jaurlaritzak ez dakiela nola kudeatu herritarren eta autonomia erkidegoaren arazoak, %49ak erantzun zuen hori, hain zuzen ere. %36aren arabera, gobernuak badaki nola kudeatu arazoak, baina denbora behar du. Azkenik, gobernuak erkidegoaren arazoak nola kudeatu badakiela, %4ak soilik erantzun zuen.

Erantzun horiekin lotu daiteke Eusko Jaurlaritza Berriari Buruzko aurreikuspen Eusko Jaurlaritzaren hainbat esparruri buruz herritarrek egin zuten balorazioa. Herritarren %46aren arabera, Eusko Jaurlaritzak ondo azaltzen du zer egiten duen eta zergatik egiten duen egiten duen hori, eta gainera, eraginkortasun nahikoa duela.

Kontuak emateko gai horretan, Gobernuaren Kudeaketaren inguruko ikerketan azaltzen den moduan, Gobernuak esleitzen duen informazioaren inguruan, herritarren %43ak uste du nahikoa ez dela, %30ak ezer ez duela ematen eta %23ak nahikoa informazio eskaintzen duela.

Beraz, ondorioztatu daiteke herritarrak orokorrean ez daudela oso konforme Eusko Jaurlaritzaren kontu emate graduarekin; hau da, zer egiten duen eta zergatik egiten duen horren inguruko informazio gutxi dauka herriak eta horrek, gobernuarengan konfiantza eza dakar.

2012. urtean, krisi ekonomikoak oraindik bete-betean astintzen zuen herrialde batean, ia herritarren erdiak uste zuen Euskadiko egoera politikoa txarra zela eta %31k ona zela. Hala ere, Espainiarekiko zuten pertzepzioa guztiz ezberdina zen: herritarren %8k uste zuen Espainiako egoera politikoa ona zela, %38k txarra zela eta %47k oso txarra zela.



Egoera politikoa orokorrean txartzat hartu zen arren, Euskadiko populazioarentzat iruzur fiskalak eta ustelkeriak garai hartan (2012), ez zuen garrantzi handirik hartzen; izan ere, %1arentzat zen hori Euskal Autonomia Erkidegoko arazo larriena. Hala ere, inkestatutakoen aburuz, Eusko Jaurlaritzak izan beharko lituzkeen helburuak langabeziaren kontra joatea eta krisi ekonomikoaren aurka joateaz aparte, horiek baitira garrantzitsuenak herriarentzat, iruzur fiskal eta ustelkeriaren kontra joatea izan beharko litzateke (%20aren arabera).

Amaitzeko, politika publikoen inguruko ikerketak dioenez, inkestatutakoek orokorrean ez dute administrazioarekiko oso pertzepzio ona. Izan ere: herritarren %50tik gora esan zuen udaletxeengan eta aldundiengan zuen asetasuna nahikoa zela; Eusko Jaurlaritzaren baitako asetasuna, ordea, baxuagoa zen, %46ak esan baitzuen nahikoa asetzen ziola eta %25ak gutxi asetzen ziola; eta, oraindik eta okerragoak izan ziren gobernu zentralak jaso zituen emaitzak: %28 asetasun nahikoa zuen, %27ak asetasun gutxi zuen eta %18ari Espainiako Gobernuak ez zion inondik inora asetzen.

Datu horiek erakusten dute, herritarren eskakizunak haratago doazela Eusko Jaurlaritzaren eskaintzen duenarekin alderatuta. Horregatik, herritarren balorazioa ez da ona.

Gizartea aldatuz doa eta horrek eskatzen dituen baloreen kudeaketaren erantzukizuna nola gauzatzen den handituz doanez, estatuen botere administratzaileek eskaini behar dituzten gardentasun baliabideak egokituz doaz. Hala nola, zintzotasuna, kontuak ematea, erantzukizuna... arautuz.

5.AMAIERA

90. hamarkadan New Public Managementarekin, gardentasunak indarra hartu zuen eta horren ostean, Gobernantza kontzeptualizaziora pasatzean, IKTen garapena bermatu zen; hau da, estaien arteko harremanen sistematizazioa. Horrela, Gobernantzarekin koordinazio tresnen beharra azpimarratzen da.

Gobernu onaren egitekoa, herritarrak entzun eta beraien eskaerei erantzutea da. Bide horretatik, bi aurrebaldintza garrantzitsu beharrezkoak dira: batetik, aginte politiko eta bestea teknologia eta administrazio elektronikokoak gobernu ekintza horiek ahalbidetzea eta erraztea dituzte.

Gobernu on baten funtsezko elementuak ekarriko ditut gogora berriro ere, Eusko Jaurlaritza gobernu on bat bezala har daitekeen eta elementu horiek bere gain hartzen dituen ondorioztatu ahal izateko: legitimoa izan behar da, gardena, demokratikoa, arduratsua, eraginkorra, efizientea, koherentea, eskuduna, beharrei erantzunak ematen diona, kontsentsura bideratutakoa, ikuspuntu estrategikoekin bidezkoa dena, errespetuzkoa Zuzenbide Estatu eta Giza Eskubideei dagokionez, herritarren autonomia eta askatasuna bermatzen duena, herritarren parte-hartzea sustatzen duena, inpartziala dena eta kontuak ematen dituena.

Gardentasuna, administrazioaren kontrolerako eta herritarren parte-hartzea bermatzeko tresna garrantzitsua da. Modu horretan, administratuek administrazioarekin harreman horizontalagoa izatera heltzen dira, beraz, estatuaren esku hartzea ematen da; hots, kultura demokratikoagoa bermatzen da administrazioarekiko. Gizarte kudeaketa on baterako, herria ondo informatuta edukitzea ezinbestekoa da eta horrela, informazioa bitarteko teknologikoen bidez eskaintzeak asko aldatu ditu erakundeen formak, kudeaketan eta estatuaren prozeduran.

Gardentasunaren printzipioa aurrera eramateko, ezinbestekoak dira agindu politikoak, lege formak, eta bestalde, teknologia berrien hedapena ematea.

Hala, lehenengoari erreparatuz, Espainia oso berandu bildu da gardentasun politikak txertatzera gizartean, eta gainera, honen inguruan oso herritar gutxi dakite ezer. Hala ere, jendeak honen bitartez gizarte eta demokraziaren hobekuntza jasoko den esperantza dauka.

Teknologia berrien hedapenari dagokionez, administrazio publikoaren barneko gardentasunak, gobernuaren irekiera suposatu du esparru guztietan herritarrek beraiei dagokien erabakietan parte har dezaten. Internet eta sare sozialen etorrerarekin, herritarrek protagonismoa duten testuingurua zabaldu egin da: gai publikoetan gizartea hobeto informatuta eta inplikatuago dago.

Horrela, administrazioak gardentasun balioa planteatzen du, bere egunerokotasuneko ekintzetan ematen den komunikazioan; izan ere, herritarren partetik konfiantza eta kontrol zuzena errazten du, zeinak bere gestoreen gainean kontrol handiago bat suposatu dezakeen eta oposiziotik eraikuntza jarduerak burutzeko aukera ematen duen. Informazioa modu ulergarri eta sinplean eskaintzea, beharrezkotzat jotzen da.

Era berean, gardentasunak gobernu barneko prozesuen gehiengoa hartu behar du bere gain, erregistro publikoen sarbiderako eskubidea nagusitzen delarik, datu pertsonalen babesa bermatuz. Gobernuaren datu publikoen irekierarekin, berrerabiltzeko formatua, administrazioaren kudeaketa aztertu eta ebaluatzea ahalbidetzen du. Gardentasunak, gobernu irekiaren zutabe gisa, administrazioaren ateak irekitzea errazten du, herritarrek informazioa berreskuratzeko eta gizarte ardura osatzeko.

Azkeneko bi hamarkadetan Espainiako gizarteak aldaketa sakona jasan du ordena sozial eta ekonomiko berri bat txertatu baita. Gizartea, ilustratuagoa, zorrotzagoa eta dinamikoagoa den heinean, kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzen ditu, emaitza botere publikoaren portaera gida eta patroia bihurtuz.

Horretaz aparte, globalizazioak, informazioaren metaketa bat ekarri du, zeinaren kudeaketa ez da nahi zena bezain pozgarria izan kasu askotan.

Espainiara azken urteetan, informazio eta ezagutza lerro berriak iritsi dira, nazioz gaindiko instantzia eta beste estatu batzuetatik eratorriak. Horien berrikusketa eta moldakortasuna estatuaren egoerara ez da beti modu positiboan eman.

Gero eta handiagoa izan gobernuko informaziorako sarbidea, orduan eta demokratikoagoak izango dira estatua eta gizarte zibilaren arteko harremanak. Hori garrantzitsua da, herritarrak bizitza politikoaren protagonistak izan behar baitira.

Nazioarteko gardentasun maila neurtzen duten erakundeek web orrialdeak dituzte, besteak beste, azterketaren oinarri, eta horregatik ematen zaio horrenbeste inportantzia teknologia berrien hedapen eta bermatzeari.

Euskal administrazio publikoak modernizazio prozesuaren bitartez hainbat elementu garaikide ezarri ditu. Etengabeko berrikuntza horretan, gardenak diren autonomia erkidegoetatik puntuazio altuena jaso duena izan zen EAE 2014an, 2010etik ia 50 puntu gora egin zuelarik.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, aurrekontuetan murrizketak egin dira; baina, horretaz aparte, modernizazio estrategia horietan oztopo ezberdinak aurkitu ditzakegu.

Alde batetik, departamentuetako estrategiak proiektu orokorrarekin orekatu behar dira esfortzuen dispersioa ekidinez eta horregatik, beharrezkoa da departamentu arteko koordinazioa.

Bestetik, administrazio elektronikoak aldaketa kultural handia suposatzen du, zeinaren kudeaketa egokia ezinbestekoa izango den administrazioaren modernizaziorako.

Berrikuntza Publikorako Planarekin, horrela, administrazio elektronikoaren garapen osoa bilatzen da. Legegunea, Open Data Euskadi eta Gardena bezalako plataforma eta proiektuen bitartez, Eusko Jaurlaritzak "gobernu on" batek behar dituen elementu garrantzitsuenak biltzen dituela esan daiteke. Hau da, eraginkortasuna, kontuak ematea, *responsiveness* eta parte-hartzea, eta gardentasuna.

Gardentasun tresnei dagokionez, informazio nahikoa dago, baina, informazio hori guztia plataforma askotan aurkitu daiteke. Esate baterako,

Gardena plataforman sartu eta hortik esteka gehienek Euskadi.eus webgunera eramaten dute.

Horrela, tresna guztiek helburu ezberdinak dituzten arren, informazio larregi dago Eusko Jaurlaritzako plataforma horietan eta beraz, desinformazio puntu bat ematen da. Izan ere, nahasgarria gerta dakieke zenbait herritarrei horrenbeste webgune eta informaziorako sarbidea aurkitzea eta behin sarbidea aurkituta, informazioa topatu ahal izatea.

Bide horretatik, desinformazioak gardentasuna ekiditen du eta ondorioztatu daiteke, Eusko Jaurlaritzaren gardentasuna ez dela guztiz garbia eta gardentasun opakuaren itxura apur bat hartzen duela. Hau da, herritarrei ezagutzen laguntzea baino, gobernua irekitzen ari den itxura ezagutaraztea da helburua.

Bestalde, aktiboa edo pasiboa den ondorioztatzeko garaian, Open Data Euskadiri erreparatuko diot; izan ere, honen kasuan informazioa eskatu egiten da eta hori zuzenean loturik dago informaziorako sarbidearen eskubidearekin. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren gardentasuna pasiboa dela esan daiteke Open Data Euskadiri dagokionez. Hala ere, beste plataformetan informazioa eskuragarri dago eta gardentasuna tresna horien kasuan aktiboa izango litzateke.

Txostenean zehar eginiko azalpen teorikoa eta Eusko Jaurlaritzaren "*Euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren lege proiektua*" harremanetan jarriz, Euskal Autonomia Erkidegoan gardentasuna lortzera bidean lana egiten ari da gobernua. Gobernu ona lortzeko asmotan, hainbat mekanismo erabiltzen ditu Eusko Jaurlaritzak eta gainera, elementu gehiago jarriko ditu abian legea onartzen den unetik aurrera.

Gardentasunak, abantailak eta arriskuak ditu. Gobernu eta instituzioei dagokionez, gardentasun politika horiek ezartzerakoan lortu da bai gobernu baita instituzioen baitan konfiantza eta gogobetetasuna handitzea, informazio barne antolaketa izatea, jarduera irregularra jarraitzea legearekin eta administrazioen eta plataformen arteko barne antolaketa harremanetan jartzea.

Horrez gain, herritarrekiko abantailak dira: gobernu ekintzaren inguruko ezagutza zehatza izatea, egiazko informazioa egotea erabaki-hartzeetan, gobernuaren datu ofizialak eskuragarri izatea, parte-hartze eta fiskalitatearekiko gaitasun handiagoa izatea, zerbitzu profesionala eskaintzea eta azkenik, eguneroko bizitzako datu berrerabilgarriak zabaltzea.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektuek, ordea, ez dute onarpen nahikoa izan herritarren partetik, Prospekzio Soziologikoen Kabinetetik egindako ikerketek adierazten duten moduan, Espainiarekin alderatuta kalifikazio hobeak jaso dituen arren. Izan ere, inkestatutako populazioaren soilik erdiak dauka konfiantza Eusko Jaurlaritza Berriarengan, eta erkidegoko gobernuarenganako konfiantzak 4.2/10ko kalifikazioa jaso zuen. Finean, inkestek diotenaren arabera, konfiantzaren eboluzioa beherantz joan da bai Espainia baita Euskadin ere.

Gobernuaren zereginari erreparatuz, gainera, herritarrak orokorrean ez daude konforme Eusko Jaurlaritzaren kontu emate graduarekin, zer egiten duen eta zergatik egiten duenaren inguruko informazio gutxi baitaude. Hala, kontuak ematerako orduan, herritarren ia erdiak nahikoa ez dela uste du, %30ak ez duela ezer ematen eta %23ak nahikoa informazio eskaintzen duela.

Lanean zehar aurkitzen diren ideietan agertzen den moduan, mendebaldeko munduan gobernu, alderdi politiko, administrazio publiko zein pribatu, elite eta abarren gaineko konfiantza galdu egin da.

Konfiantza galera honen aurrean eta beste hainbat gertakizunen ondorioz (ustelkeria, modernizazioa, teknologien hazkundera eta digitalizazioa, ...) gardentasun politiken gorakada bat eman da.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar gardentasunak ere arriskuak ekarri ditzakeela. Horien artean ditugu, lehendabizi, informazio gehiegi edo beharrezkoa ez den informazioa ezartzeko arriskua; eta bigarrenez, segurtasun falta. Halaber, estrategia teknologia bidez egite horrek badu beste arrisku bat ere: gardena soilik izango da teknologia berriak erabiltzeko gai denarentzat.

Eusko Jaurlaritza, bere osotasunean da legitimoa, demokratikoa, eskuduna, errespetuzkoa Zuzenbide Estatu eta Giza Eskubideei dagokionez eta orokorrean, ikuspuntu estrategikoekin bidezkoa izaten saiatzen da.

Horrez gain, lan handia egiten ari da administrazio gardenago bat lortzeko asmotan, mekanismo anitz ari dira sortzen eta herritarrenganako gobernu irekia bideratzen ari dira.

Beste edozein gobernuak egin dezakeen bezala, Eusko Jaurlaritzak ere parte-hartzea aitortzen du, sinadura bilketen bitartez... Hala ere, gobernu irekiaren kontzeptualizaziopean, ezin daiteke esan herritarren partaidetza sustatzen dutenik. Beraz, herritarren kontsentsura bideratzeko eta parte-hartzea sustatzeko, elementuak biltzea falta zaizkio oraindik Eusko Jaurlaritzari; izan ere, bere egitekoa informazioa bideratzea da (IREKIA plataformaren bitartez) eta ez horrenbeste herritarren parte-hartzea bilatzea.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak herritarren parte-hartzea sustatzeko mekanismo eraginkorragoak falta ditu, herritarren arteko adostasuna eta kontsentsua eman ahal izateko. Hala ere, informazio emate horretan, herritarren proposamenak jasotzeko aukera dago eta horrek, herritarren autonomia maila eta askatasunerako eskubidea erakusten du.

Finean, bere erantzukizuna eta koherentzia mantentzen saiatuz, Espainiakoa baino gobernu eraginkorrago eta modernizatuago bat da Eusko Jaurlaritza, Europar Batasunak ezartzen dituen irizpideei jarraikiz.

Kontuak emateari dagokionez, herritarrak orokorrean oso pozik ez daudela ondorioztatu dela aipatu dut arestian. Hala ere, ez dugu ahaztu behar inkestak momentu jakin bateko argazki bat direla eta askotan ez dutela errealitate politikoa oso ondo islatzen.

Hain zuzen ere, ez dakigu zein puntura arte saiatu den jendea informazioa bilatzen Eusko Jaurlaritzako webgunean, zein motako informazioa eta zein orrialdetan. Egia da, kontu emate horien inguruko hazkundera ematen ari dela urtetik urtera gobernuaren lanketa ezberdinen bitartez, baina, herritarrek duten behar eta zalantzen inguruko ikerketa bat beharko litzateke honen ondorioztapen zehatz bat egin ahal izateko.



Herritarren heterogeneotasuna kontuan izanik, behar eta interes ezberdinak daudela jakinik, Eusko Jaurlaritza bere betebeharreko arduratsua, koherentea, erantzulea, inpartziala, beharrei erantzuna ematen diona eta eraginkorra den esatea zaila da. Baina, urteak aurrera doazen heinean, herritarrengana hurbiltzeko eta hauek informatuak mantentzeko ahaleginak egiten ari direla ezin daiteke ukatu.

BIBLIOGRAFIA

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- Aranda, E. (2013). Una reflexión sobre transparencia y buen gobierno. *Cuadernos Manuel Giménez Abad*, 5.zk, 214-229
- Ayllon, J.L. (2012). La transparencia y el buen gobierno son la otra cara de la estabilidad. *Auditoría Pública*, 57.zk, 5-9
- Cabrera, M.E. (2014). La transparencia para un buen gobierno". V. *Convención Nacional de Archivistas*. Puebla (Mexiko)
- Blasco, A. (2012). *El derecho publico de la crisis económica. Transparencia y sector público. Hacia un nuevo derecho administrativo*. Madrid: INAP
- Bote, V; Garcés, M; García, A; Marín, M; Navarrete, F. TRANSPARENCIA PÚBLICA. *Price Water House Coopers. Instituto de Empresa*.
- Chaqués Bonafont, L. (2004). *Redes de políticas públicas*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- CIS. (2007). Barometroa, otsaila.
- Colino, C. (2012). *Las Administraciones Públicas y el sistema político*.
- Cotino, L. (2003). *Teoría y realidad de la transparencia pública en Europa*. (Ikerketa lana). Hemendik berreskuratua: http://www.cotino.net/web/cotino_org/publicaciones/DEFINITIVO.PD
- E
- De Miguel, M; Ribes, G; De Miguel, B; De Val Segarra, M. (2007). El buen gobierno en la administracion publica española: principios incluidos y excluidos. *XV Congreso Nacional de Ética de la Economía y de las Organizaciones. El Buen Gobierno y las Organizaciones*, (1-11 zk). Barcelona: IESE Business School.
- Díaz, A. (2010). *Calidad Democrática y Buen Gobierno. Calidad y buen gobierno: enfoque y contenidos*. Federación Española de

- Municipios y Provincias, Agencia de evaluación y calidad, y Ministerio de política territorial y administración pública.
- Europar Kontseilua. (2015). *RECOMENDACIÓN DEL CONSEJO relativa al Programa Nacional de Refomas de 2015 de España y por la que se emite un dictamen del Consejo sobre el Programa de Estabilidad de 2015 de España*. Bruselas.
 - Euskal Sektore Publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu oneko lege-proiektua
 - Fernández, L; Parra, E; Briceño, A. (2010). Gobernabilidad Democrática en Construcción y Estilo de Gobierno en Transición. *Panorama*, 24.zk, 78-85
 - *Gardentasunari buruz*. (2016). *Gardena.euskadi.eus*. Hemendik berreskuratua: <http://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna/-/gardentasunari-buruz-eusko-jaurlaritzan/#2944>
 - Guerrero, O. (1997). "*Principios de la Administración Pública*". Kolonia: ESAP
 - Innerarity, D. (2006). *El nuevo espacio publico*. Madrid: Espasa.
 - Johnston, M. (2006). *Good Governance: Rule of Law, Transparency, and Accountability*. *New York: United Nations Public Administration Network*.
 - La gobernanza europea. (2001). Luxemburgo
 - Lippi, A; Morissi, M. (2008). *Gestión y administración públicas*. Valentzia: Tirant lo Blanch
 - Lizcano, J. (2013). La nueva Ley de Transparencia: un importante desafío social. *ABOGACÍA ESPAÑOLA*
<http://www.abogacia.es/2013/12/23/la-nueva-ley-de-transparencia-un-importante-desafio-social/>
 - Mansilla, H.C.F. (1982). Las teorías clásicas sobre el buen gobierno y su significado actual. *Revista de estudios políticos (Nueva Epoca)*. 29. zk, iraila-urria, 163-176
 - Meseguer Yebra, J. (2013). *La transparencia en las administraciones públicas. El procedimiento de acceso a la información pública*. Barcelona: Bosch.

- Naessens, H. Etica pública y transparencia. Rey Tristán, Eduardo; Calvo González, Patricia. *XIV Encuentro de Latinoamericanistas Españoles: congreso internacional. Santiago de Compostela, Spain. Universidad de Santiago de Compostela, Centro Interdisciplinario de Estudios Americanistas Gumersindo Busto; Consejo Español de Estudios Iberoamericanos, 2010eko iraila (2113-2130 orr), Cursos e Congresos; 196. <halshs-00531532>*
- Ospina, S. (2006). <<Informe de conclusiones del área temática: Planificación, presupuestación y evaluación por resultados>>, documento presentado en el *XI Congreso Internacional del CLAD sobre la Reforma del Estado y de la Administración Pública*, Guatemala, azaroaren 7tik 10era.
- Parigi, K.; Geeta, P; Kailasam, R. (2004). Ushering in Transparency for Good Governance. United Nations Economic and Social Commission for Asia and the Pacific. Hemendik hartua: <http://www.unescap.org/sites/default/files/good-governance.pdf>
- Pérez Aramburu, E. (2011). *La administración pública en el estado moderno: Enfoques teóricos para el análisis de la administración pública* (Gradu amaierako lana). Hemendik berreskuratua: <http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/tesis/te.667/te.667.pdf>
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2013). Eusko Jaurlaritzaren Berriari buruzko espektatibak, martxoa.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2012). Euskal Soziometroa: Egoera soziopolitikoaren pertzepzioari buruzko Euskal Soziometroarena, ekaina.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2012). Euskal Soziometroa: Egoera soziopolitikoaren pertzepzioari buruzkoa, azaroa.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2015). Euskal Soziometroa: Egoera ekonomikoaren pertzepzioa apur bat hobetu da, baina txarra izaten jarraitzen du, ekaina.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2010). Iritzi Politikoa, maiatza.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2010). Gobernuaren Kudeaketa, abendua.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2010). Politika Publikoak, urria.

- Sicilia, B. (2006). *Derechos fundamentales y Constitución Europea*. Gasteiz: Ararteko.
- Stoker, G. (1998). El "buen gobierno como teoría": cinco propuestas.
- Vasco, E. (2016). *¿Qué es Legegunea ?*. *Etxebide.euskadi.eus*. Hemendik berreskuratua: <http://www.etxebide.euskadi.eus/que-es-legegunea/x39-contgen/es/>
- Vasco, E. (2016). *Datuak nola erabili*. *Opendata.euskadi.eus*. Hemendik berreskuratua: <http://opendata.euskadi.eus/datuak-nola-erabili/>
- Vasco, E. (2016). *Transparency International España-ren ebaluazioa*. *Gardena.euskadi.eus*. Hemendik berreskuratua: <http://www.gardena.euskadi.eus/orokorra-gardentasuna/-/incau-ebaluazioa/>
- Villoria, M. (2014). Desarrollo, buen gobierno y transparencia: revisión conceptual. *Tiempo de paz*. 114.zk, 4-10
- Villoria, M.; Izquierdo, A. (2015). *Ética pública y buen gobierno. Regenerando la democracia y luchando contra la corrupción desde el servicio público*. Madrid: EDITORIAL TECNOS (GRUPO ANAYA S.A).
- Weiss, F; Steiner, S. (2006). Transparency as an Element of Good Governance in the Practice of the EU and the WTO: Overview and comparison. *Fordham International Law Journal*. Vol. 30, Issue 5, Article 8 (1545-1586)
- What is Good Governance? United Nations. *Economic and Social Commission for Asia and the Pacific*